


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ZUZENBIDE
FAKULTATEA
FACULTAD
DE DERECHO

**EZKONTIDE ALARGUNA ETA BIZIRIK
DIRAUEK IZATEZKO BIKOTEAREN
BABESA EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILAREN
NAHITAEZKO OINORDETZAN**

GRADU AMAIERAKO LANA

ZUZENBIDE FAKULTATEA

2022-2023

EGILEA: Izadi Korkostegi Altzibar

ZUZENDARIA: Maitena Arakistain Arriola

AURKIBIDEA

LABURDURAK	3
I. SARRERA	4
II. EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILAREN IBILBIDE HISTORIKOA	5
III. 5/2015 LEGEA: ORDENAMENDU ZIBIL (IA) BAKARRA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN	7
IV. EZKONTIDE ALARGUNA ETA BIZIRIK DIRAUEK IZATEZKO BIKOTEAREN PAREKATZEA	9
4.1 Izatezko bikoteen egoera arautzeko eskumena	9
4.2 2/2003 Euskal Legea, Izatezko Bikoteak arautzen dituenak	12
V. EZKONTIDE ALARGUNA ETA BIZIRIK DIRAUEK IZATEZKO BIKOTEAREN BABESA 5/2015 LEGEAN	15
5.1 Borondatezko oinordetza	16
a) Komisario bidezko oinordetza	17
b) Gozamen unibertsala	19
c) Testamentu mankomunatua	19
5.2 Legezko Oinordetza	20
VI. EZKONTIDE ALARGUN ETA BIZIRIK DIRAUEK IZATEZKO BIKOTEAREN DERRIGORREZKO OINORDETZAN	21
6.1. Senipartea: derrigorrezko gozamen eskubidea	23
A) Kontzeptua eta objektua	24
B) Subjektua	26
C) Gozamenaren konmutazioa	26
D) Gozamen eskubidea azkentzea	27
E) Gozamen eskubidea eta tronkalitatea	28
F) Gozamen eskubidea babes bezala	29
6.2 Biztantze eskubidea	30
A) Kontzeptua eta objektua	30
B) Subjektua	32
C) Konmutazioa	32
D) Biztantze eskubidea azkentzea	33
E) Biztantze eskubidea eta tronkalitatea	33
F) Biztantze eskubidea babes bezala	33
VII. ONDORIOAK	34
VIII. BIBLIOGRAFIA	37
JURISPRUDENTZIA	40
WEB ORRIALDEAK	41

LABURDURAK

AGE	Auzitegi Goreneco Epaia
AG	Auzitegi Gorena
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EZZL	Euskal Zuzenbide zibilari buruzko Euskal Legea
EAAE	Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua
EK	Espainako Konstituzioa
KZ	Kode Zibila
KAE	Konstituzio Auzitegiko Epaia
art.	artikulua
koord.	koordinatzailea
zuz.	zuzendaria
zk.	zenbakia
3/1992 Legea	EHFZZL
2/2003 Legea	IBL

I. SARRERA

Jakina denez, Zuzenbideak gizarteak planteatzen dituen egoerei erantzuna emateko beharra dauka, hortaz, gizartea aldatu ahala, Zuzenbidea ere. Gaur egungo gizarteak planteatzen duen arazoetako bat, gizartearen zaharkitzea dugu, eta jakina, egoera honek Zuzenbidearen aldetik erantzunak eskatzen ditu.

Zuzenbide zibilaren alorrean, egoera sozial honi aurre egiteko, oinordetza Zuzenbidearen egokitzea ezinbestekoa litzateke. Kontuan izanda bizi-itxaropena gero eta altuagoa dela¹, gero eta ohikoagoa da ezkontide alargun zein bizirik dirauten izatezko bikotekideak kalteberatasun egoeran aurkitzea, gehienetan zahartzaroan aurkitzen baitira. Honek, haien beharrianak asetu ahal izateko burujabetasun ezak alegia, sarri zahar-etxeen edo zaintzaileen beharra dakar. Hori dela eta, oinordetza Zuzenbidean subjektu hauei emandako babesak egoera berri honetara egokitu beharko lirateke.

Gauzak horrela, lan honen helburu nagusia, Euskal Zuzenbide zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legean (EZZL), ezkontide alargunak edo bizirik dirauen izatezko bikotekideak derrigorrezko oinordetzan jasotzen duen babesa aztertzea da. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidego (EAE) osoan lehen aldiz euskal Zuzenbide zibil araudi bakar eta bateratua ezartzeaz gain, alargun zein bizirik dirauen izatezko bikotekidearen egoera hobetze aldera hainbat alderdi erreformatu dira lege honen bitartez. Beste hitz batzuetan, ikerketa honetan landu nahi dena euskal lege berriak gaur egungo beharrian sozialei erantzuten dien aztertzea litzateke, derrigorrezko oinordetza babesak gaur egungo ezkontide alargun edo bizirik dirauen izatezko bikotekidearen egoerari begira egokiak ote diren aztertuz.

Azaldutakoa landu ahal izateko, lehenik eta behin euskal Zuzenbide zibilaren ibilbide historikoa laburbilduko dugu, 5/2015 Legearen aurrekaria aipatuz, eta aztergai dugun legearen testuingurua ulertu ahal izateko. Ondoren, izatezko bikoteen egoeraren inguruan zertzelada batzuk emango ditugu, legeak aitortzen dien parekotasuna azaltzeko, bereziki, oinordetza-eskubideei dagokionez. Jarraian, bizirauten duen pertsonaren egoera (alargun edo bikote) osotasunean ulertzea helburu, borondatezko zein legezko oinordetzan jasotzen duen babesari erreparatuko diogu, ikuspegi orokor batetik bada ere. Azkenik, lanaren muinera

¹ DatosMacro. Esperanza de vida al nacer. Eskuragarri hemen: www.datosmacro.com

helduko gara, derrigorrezko oinordetzan murgilduz. Esan bezala, ezkontide alargunak eta bizirik dirauen izatezko bikotekideak derrigorrezko oinordetzan jasotako babesak landuko dugu, gozamen eskubidearekin hasiz, eta 5/2015 legeak berrikuntza bezala araututako biztante eskubidearekin amaituz.

II. EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILAREN IBILBIDE HISTORIKOA

Euskal Zuzenbide zibilaren oinordetza sisteman alargun eta bizirik dirauten izatezko bikoteen egoera aztertzeari ekin baino lehen, komenigarria da gogoratzea Espainiako Zuzenbideak ordenamendu zibil anitzak barnebiltzen dituela, Estatuko Zuzenbide zibila eta Zuzenbide zibil autonomikoen elkarbizitza aitortuz². Gauzak horrela, espainiar estatuan Zuzenbide zibila arautzen duen 1889 ko Kode Zibila dago indarrean, hala ere, zenbait Autonomia Erkidegok berezko Zuzenbide zibila dute, Euskal Autonomia Erkidegoa barne. Jakinaenez, 1978ko Espainiar Konstituzioak (EK) legeria zibilaren arloko eskumen eskusiboa Estatuari esleitzen dio, EK 149.1.8 artikulua adierazten duen bezala. Hala ere, artikuluan bertan zehazten da eskumen eskusibo horrek ezingo duela eragotzi “*autonomia erkidegoek beren zuzenbide zibil, foral edo bereziak gordetzea, aldatzea eta garatzea, halakorik dagoen lekuetan*”. EAE-k 1979ko Estatutuan (EAE) eskumen hau jaso zuen, araudi zibil propioa mantentzeko, aldatzeko eta garatzeko aukera baliatuz (EAE 10.5 artikulua). Hala ere, Kode Zibila ordeko araudia izango da arautu gabeko arloetan, euskal Zuzenbide zibilarekiko subsidiarioa. Hori dela eta, Zuzenbide zibil propioa kontserbatzea ahalbidetu da³.

Jakinaenez, historikoki, gaur egun EAE osatzen duten lurraldeek, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoak, ez dute batasun politiko-administratiborik, ezta ordenamendu juridiko bateraturik izan⁴. Egoera sakabanatu honen isla izan da Euskal Zuzenbide zibilari buruzko 5/2015 legea indarrean sartu arteko euskal Zuzenbide zibila. Urrunago joan gabe, egungo 5/2015 Legearen aurrekari zuzena, Euskal Herriko Foru Zuzenbide zibilari buruzko uztailaren 1eko

²1 DÍEZ-PICAZO, L. eta GULLÓN BALLESTEROS, A., *Sistema de Derecho Civil*: vol. IV (Tomo 1), Tecnos, Madrid, 2018, 147. orr.

³ IMAZ ZUBIAUR L., *Euskal Zuzenbide Zibila I*, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2007, 20-28 orr.

⁴ GIL RODRÍGUEZ, J., “¡Por fin, hacia un Derecho civil vasco!”, *¿Hacia dónde van los Derechos Civiles Autónomos? El futuro de los Derechos Civiles Autónomos*-n, L. Gázquez Serrano (koord.), Madrid, Difusión Jurídica y Temas de Actualidad, 2011, 4.orr

3/1992 Legea (EHFZZL) , hiru foru-arau multzotan banatuta zegoen, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeei zegozkienak: Bizkaiko Foru zibila, Arabako Foru zibila eta Gipuzkoako Foru zibila⁵, hiru liburu ezberdinetan banatuta. Gainera, aipatu beharrekoa da 3/1992 Legea ez zela aplikagarri EAE osoan, soilik baitzen aplikagarri zenbait eremu zehatzetan:

- Bizkaiko Foru zibilari zegokion I. Liburua, “Lur Laua⁶” deritzon lurraldean zegoen indarrean. Kontuan hartu behar dugu Bizkaiko Forua, Laudion eta Aramaion ere zela aplikagarri, nahiz eta hauek geografikoki Araban kokatuta egon.
- Arabako Foru zibilari zegokion II.Liburua “Aiarako Forua” Aiarako ibarrean aplikagarri zen (Amurrio eta Okondo udalerrri osoetan eta Artziniega udalerriko Mendieta, Erreta-Tutera, Santa Koloma eta Zolloguti herrietan)⁷.
- Gipuzkoako Foru zibilari zegokion III. Liburua Gipuzkoako lurralde historikoko baserrietan bizi zirenei soilik zitzaien aplikagarri⁸. Hala ere, kontuan hartu behar dugu Gipuzkoako Foru Zuzenbide zibilari zegokion Liburua 3/1992 Legeari gehitua izan zela azaroaren 23ko 3/1999 Legearen bidez⁹.

Arestian aipatutako eremuetatik kanpo geratzen diren Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeak Espainiar Zuzenbide zibilaren menpe zeuden, 3/1992 Legearen aplikazio eremutik at geratzen ziren heinean. Hortaz, Bizkaiko hiribildu edo hirietan, Aiara, Aramaio edo Laudio ez diren Arabako gunetan eta Gipuzkoan kokatutako baserrien titular¹⁰ ez ziren biztanleak Espainiako Kode zibilpean zeuden.¹¹

⁵ GIL RODRÍGUEZ, J., “Del Derecho Foral al Derecho Civil Vasco”, *Manual de Derecho Civil Vasco*-n, J. Gil Rodríguez (zuz.) eta G. Galicia Aizpurua (koord.), Atelier, Barcelona, 2016, 26. orr.

⁶ 3/1992 Legea, uztailaren 1ekoa, Euskal Foru Zuzenbide Zibilari buruzkoa, 6. artikulua: “*Infantzonatua edo Lur Laua izenarekin Bizkaiko Lurralde Historiko osoa izendatzen da, Urduñako Balmaseda, Bermeo, Durango, Ermua, Gernika-Lumo, Lanestosa, Lekeitio, Markina-Xemein, Ondarroa, Otxandio, Portugalete eta Plentzia hiribilduen zati forugabea eta egungo Bilboko udalerrria izan ezik.*”

⁷ 3/1992 Legea, uztailaren 1ekoa, Euskal Foru Zuzenbide Zibilari buruzkoa, 131.artikulua.

⁸ 3/1999 Legea, azaroaren 16koa, Euskal Herriko Zuzenbide Zibilari buruzko legea aldatzekoa, Gipuzkoako Foru Zibilari dagokionez, 150. artikulua.

⁹ GIL RODRÍGUEZ, J., “Del Derecho Foral al Derecho Civil Vasco”, *Manual de Derecho Civil Vasco*, *op. cit.*, 34. orr.

¹⁰ 3/1999 Legea, azaroaren 16koa, Euskal Herriko Zuzenbide Zibilari buruzko legea aldatzekoa, Gipuzkoako Foru Zibilari dagokionez. 150 artikulua.

¹¹ GALICIA AIZPURUA, G., “Notas a la Ley 5/2015, de 25 de Junio, de Derecho Civil Vasco”, *Actualidad Jurídica Iberoamericana*, 4. zk., 2016, 305-306. orrietan ederki laburbiltzen du egoera: “*Tamaño confluencia de normas jurídico-privadas provocaba como resultado la necesidad de distinguir, dentro de un ámbito espacial tan reducido como el de la CAV, hasta cinco estatutos diferentes; a saber, el propio del CC, los tres regulados en la LDCF para cada uno de los Territorios Históricos y un quinto predicable de los vizcaínos no aforados (o vizcaínos de villa), toda vez que el art. 13 LDCF les reconocía la posibilidad de testar mancomunadamente y por comisario, eximiéndolos, en consecuencia, de las prohibiciones contenidas en los arts. 669 y 670 CC. Así,*

Gainera, Euskal Zuzenbide zibilaren Foru Legea, 1978ko Espainiar Konstituzioan aitortutako eskumenak erabiliz egin zen arren, denbora igaro ahala Autonomia Erkidegoek gero eta ahalmen gehiago lortu zituzten Zuzenbide zibilaren arloan. Autonomia Erkidegoek bere eskumenak garatzean eta Zuzenbide zibil propioa arautzeko askatasuna lortu ahala, anbizio gehiagoko euskal lege zibil bat sortzearen inguruko irrika sortu zen, EAEn arlo zibila garatzeko askatasun eta batasun handiagoa lortzen zuen araudi bat garatzeko nahia areagotuz¹². Hala ere, nahiz eta Eusko Jaurlaritzak 1979tik, Estatutua onartu zenetik hain zuzen, euskal Zuzenbide bateratu bat lantzeko eskumena izan duen, 2015 arte itxaron behar izan dugu, euskal legegileak, 5/2015 Legearen bitartez, EAE osoan aplikagarria den araudi zibil bat garatzeko.

III. 5/2015 LEGEA: ORDENAMENDU ZIBIL (IA) BAKARRA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Euskal Zuzenbide zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea, uztailaren 3an Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta urriaren 3an indarrean sartu zen, 1978ko Konstituzioko 149.1.8 artikulua emandako eskumena baliatuz eta Autonomia Estatutuko 10.5 artikuluari jarraiki¹³. EZZL berriak ekarritako aldaketa nabarmenena lurralde guztietarako erkidea den euskal araudia ezartzea da, beraz, hemendik aurrera ez dira Bizkaiko Forua, Gipuzkoako Forua eta Arabako Forua bereiziko, hiru lurralde historikoentzat komuna izango baita araudi zibil berria¹⁴. Hortaz, lurralde historikoen arteko bereizketak alde batera utziz (nahiz eta, jarraian ikusiko dugunez, zenbait berezitasun mantendu egin diren)¹⁵.

Batasun hau posible izan dadin, euskal auzotasun zibila sortu zen. Auzotasun zibila herritar orok lurralde jakin bati atxikita egoteagatik duen baldintza edo egoera zibila da. Espainiako

mientras un núcleo significativo de la población del País Vasco (alrededor de un 45% o, lo que es igual, en torno a un millón de habitantes) estaba sujeto íntegramente al régimen común, el resto venía a repartirse...

¹² AGUIRRE ZÁRATE, I., “Legítima y apartamiento: reglas de aplicación temporal y problemas que suscita su interpretación (tras la entrada en vigor de la ley 5/2015, de 25 de junio)”, *JADO*, 30. zk., 2022, 57-60 orr.

¹³ 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa: Zioen azalpena

¹⁴ GOROSTIZA ETXEBERRIA, L., “5/2015 Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko legearen eragingarritasun soziala”, *JADO*, 30. zk., 2022, 257-263 orr.

¹⁵ 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa, 8.artikuluua.

ordenamendu juridikoan, auzotasunak zehazten du zein araudi aplikatuko zaion pertsona bakoitzari. Auzotasun zibila eskuratzeko erak Kode Zibilak arautzen ditu 14. artikuluan¹⁶. Euskaldunen kasuan, euskal Zuzenbide zibil bakarra euskaldun guztiei aplikatu ahal izateko, beharrezkoa zen euskal auzotasuna eratzea konexio puntu bezala eta hori izan da, hain zuzen ere, lege berriak egin duena¹⁷.

Hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztientzako auzotasun komuna sortzen da, zeina bateragarria den Aiararako herritarrek, eta bizkaitar aforatuek izan dezaketen tokiko auzotasunarekin, zenbait erakunde foralei dagokionez (xedatzeko askatasuna eta gozamen ahaltsua Aiaran eta tronkalitatea eta komunikazio forala Bizkaian; ikusi EZZLko 10.3 artikulua)¹⁸. Aldaketa honek garrantzia nabarmena du, lehen Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako auzotasunak bereizten baitziren, eta horien arabera zehatzen zen bakoitzari zegokion araudia, esan bezala lurralde historiko bakoitzak Foru desberdina mantentzen zuelako. Auzotasun euskaldunaren sorreratik aurrera, euskal auzotasuna duen orori euskal Zuzenbide zibila aplikatuko zaio (tokiko auzotasunak errespetatuz).

Euskal auzotasun zibilaren arauketa 5/2015 Legeko 10 eta 11 artikuluetan aurki dezakegu. Xedapen hauek diotenez, Euskal Herriko Zuzenbide zibila euskal auzotasuna duen pertsona orori aplikatuko zaio. Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko edozein lurraldeko auzotasun zibila zutenek automatikoki lortuko dute euskal auzotasun zibila eta bakoitzari dagokion tokiko auzotasun zibila. Bestalde, aipatu bezala, 5/2015 Legeak hutsuneak izatekotan eta ohitura foral faltan, supletorioki aplikatuko den ordenamendu juridikoa Estatuko Zuzenbide zibila izango da, Kode Zibila hain zuzen ere, EZZLko 3. artikuluari jarraiki¹⁹.

¹⁶ ECHEVERRÍA, J. D., DE, I., & LAS CORTES, D. A.: “*Vecindad civil y derecho interregional privado: una reforma necesaria*”. Lección inaugural de la apertura de curso de la Academia Vasca de Derecho, 2017, 71. orr.

¹⁷ GIL RODRIGUEZ, J. “Del Derecho Foral al Derecho civil vasco”, *Manual de Derecho Civil Vasco*, op. cit., 39. orrian azaltzen duen moduan: *Resulta ser cierto y es lo que ahora importa, que el Derecho civil vasco se aplica a todas las personas que tenemos vecindad civil vasca; o sea, desde el 3 de octubre de 2015, prácticamente, todos los alaveses, guipuzcoanos y vizcaínos nos regimos por sus dictados, especialmente, por los que ofrece sobre la sucesión mortis causa...*

¹⁸ Honen inguruan ikusi GIL RODRIGUEZ, J., “Del Derecho Foral al Derecho civil vasco”, *Manual de Derecho Civil Vasco*, op. cit., 39. orr: *El Parlamento se ha plegado a la subsistencia de micro-ordenamientos forales...Así, la nueva Ley 5/2015 respeta siquiera dos regímenes locales sucesorios especiales: uno, más restrictivo de la autonomía del causante, esto es, el concerniente a la troncalidad “en el territorio histórico de Bizkaia y en los municipios alaveses de Aramaio y Llodio” (arts. 10.3 y 61 a 87); el otro, al extremo contrario y significativamente más permisivo, esto es, la libertad de testar con la que se identifica “el Derecho civil propio del valle de Ayala” (arts. 88 a 99)...*

¹⁹ GIL RODRÍGUEZ, J., “Sistema de Fuentes del Derecho Civil Vasco”, *Manual de Derecho Civil Vasco*, op. cit., 60-62. orr.

IV. EZKONTIDE ALARGUNA ETA BIZIRIK DIRAUCEN IZATEZKO BIKOTEAREN PAREKATZEA

4.1 Izatezko bikoteen egoera arautzeko eskumena

Jakina denez, Zuzenbideak gizarteak planteatzen dituen egoerei aurre egiteko tresnak eman behar dizkigu, horregatik da beharrezkoa momentuko egoera zein den kontuan hartzea eta lege berriak horri erantzuteko prestatu eta egokitzea, Zuzenbidea etengabe eraberrituz. Gaur egun, nabaria da familia ereduen aniztasuna, baita ezkontza alde batera uzten duten bikoteen kopuruaren handitzea. Ezkontzaren eraentzatik at beraien harremana kokatzen duten bikoteei erreferentzia egiteko termino asko daude, “*izatezko bikote*”edo “*bikote egonkorrak*” besteak beste. Kode Zibilak ez du izatezko bikotea erakunde bezala arautzen, aitzitik, ez du definiziorik eskaintzen. Hala ere, nahiz eta Estatu osoan orokortutako legezko definiziorik ez egon, bai jurisprudentzia baita zenbait Zuzenbide zibil autonomiko arduratu dira erakunde hau definitzen. Doktrina ere saiatu da kontzeptua zehazten eta DIEZ PICAZOren arabera, izatezko bikotea bi pertsonen arteko lotura egonkorra arautzen duen more uxorio bizikidetzeta da²⁰. Hau da, ezkontzatik kanpoko harreman sexu-afektiboa mantentzen duten bikoteak definitzeko terminoa litzateke “*izatezko bikote*”²¹.

Gainera, gai eztabaidagarria izan den arren, izatezko bikotearen kontzeptua Konstituzioan inplizituki jasota dagoela baieztatu dezakegu; izan ere, familiaren kontzeptuaren parte dela esan dezakegu, familiaren definizio zehatzik ez dagoelako, legegilearen interpretazio desberdinak onartuz. Hots, EK 39.artikuluak babes aitorzen dio bai ezkontza-familiari bai ezkontzaz kanpoko familiari eta xedapen horren arabera, botere publikoek familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa bermatu behar dute, familia-eredu zehatz eta nagusirik inposatu gabe. Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentzia eremu honetan, 1992ko abenduaren 11ko 222/1992 sententzian aurki dezakegu, besteak beste²².

²⁰ DÍEZ-PICAZO, L. eta GULLÓN BALLESTEROS, A., *Sistema de Derecho Civil: vol. IV (Tomo 1)*, op. cit., 66. orr.

²¹ BERCOVITZ RODRIGUEZ-CANO, R., “El Matrimonio”, *Manual de Derecho Civil: Derecho de Familia-n*, R. Bercovitz Rodríguez-Cano (koord.), Bercal, Madrid, 2013, 45-47. orr.

²² KAE, 222/1992 epaia, 1992ko abenduaren 11koa (Roj. STS 222/1992): “*Ningún problema de constitucionalidad existiría si el concepto de familia presente en el art. 39.1 de la Constitución hubiera de entenderse referido, en términos exclusivos y excluyentes, a la familia fundada en el matrimonio. No es así, sin*

Gaur egun, oraindik ez dago izatezko bikoteak modu orokor batean arautzen dituen Estatu mailako araudirik. Hala ere, Kode Zibilak izatezko bikoteen existentzia onartzen du, zenbait egoera zehatzetan haien rola arautzen baitu; hala nola, KZren 101.artikuluak , pentsiorako eskubidea azkentzeari buruzkoa, elkarbizitzari egiten dio erreferentzia (“*convivir maritalmente con otra persona*”)²³ edo KZren 831.6 artikuluak, zeinak aurreikusten duen kausatzaileak hobetzeko ahalmena delegatu dezakela, ez soilik bere ezkontidearengan, baizik eta bere seme-alaben beste gurasoengan, nahiz eta ezkondata ez egon. Edonola ere, Estatuko Kode Zibilak arauketa “intzidental” bat baino ez duela egiten esan dezakegu. Aitzitik, zenbait Autonomia Erkidegok araudi propioa garatu dute, Euskal Autonomia Erkidegoa kasu. Ondorioz, izatezko bikoteen egoera ez da berdina izango, erregularizazio anitz desberdinak aurkitzen baitira Estatuan zehar.

Jakina denez, EK 149.1 artikuluan Estatuari eskumen eskusiboa esleitzen zaio ezkontza arloan. Gauzak horrela, aztertu beharrekoak dira Autonomia Erkidegoek izatezko bikoteak arautzeko eskumenaren nondik norakoak, izan ere, argitu beharko litzateke EKren 149.1 artikuluari jarraiki, Autonomia Erkidegoek arlo hau arautzea egokia den. Auzi hau gatazkatsua izan da, ezkontza eta izatezko bikotea erakunde berdinak diren edo ez argitu behar izan baita eskumen arazo honi erantzuna emateko.

Izatezko bikoteen auziari buruz, eta konkretuki autonomia erkidegoen eskumenari buruzko eztabaidak argitzeko ezinbestekoa izan da 93/2013 Epaia, maiatzaren 23koa. Nafarroako uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legearen²⁴ konstituzionaltasuna aztertzen duena. Konstituzio Auzitegiak, epai honetan argi uzten du Elkarte Autonomoek ezin dutela Estatuaren eskumen

embargo. Nuestra Constitución no ha identificado la familia a la que manda proteger con la que tiene su origen en el matrimonio, conclusión que se impone no sólo por la regulación bien diferenciada de una institución y otra (arts. 32 y 39), sino también, junto a ello, por el mismo sentido amparador o tuitivo con el que la Norma fundamental considera siempre a la familia y, en especial, en el repetido art. 39, protección que responde a imperativos ligados al carácter «social» de nuestro Estado (arts. 1.1 y 9.2) y a la atención, por consiguiente, de la realidad efectiva de los modos de convivencia que en la sociedad se expresen. El sentido de estas normas constitucionales no se concilia, por tanto, con la restricción del concepto de familia a la de origen matrimonial, por relevante que sea en nuestra cultura -en los valores y en la realidad de los comportamientos sociales- esa modalidad de vida familiar.”

²³ KZren 101. artikulua: “*El derecho a la pensión se extingue por el cese de la causa que lo motivó, por contraer el acreedor nuevo matrimonio o por vivir maritalmente con otra persona*”

²⁴ 6/2000 Foru Legea, uztailaren 3koa, bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzkoa: Zioen azalpena: “*Foru lege honek nahi duena da legedian dirauen bazterkeria desagertaraztea, hau da, gure inguru sozialean kulturalki onartzen diren famili forma ugariak kontuan hartuta, familia hori osatzen dutenen egoera pertsonal edo soziala dela-eta legeetan dirauen bazterkeria desagertaraztea; orobat, foru lege honek nahi du familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoaren arau garapena burutu.*”

esklusibo pean dagoen eremu bat arautu, beraz, izatezko bikoteen auziak ezkontza arloko eskumen eskusiboa zapaltzen ote duen aztertu zen. Izan ere, Nafarroako Legearen Konstituzio-kontrakotasun errekurtsioan argudiatzen zen, izatezko bikoteen inguruko araudiak ezkontza mota berri bat arautzen zuela eta beraz, ezkontzaren arauketa Espainiar estatuaren eskumen eskusiboa denez, izatezko bikotearen inguruko legea Konstituzioaren kontrakoa zela. Auzitegi Konstituzionalak ez zuen argudio juridiko hau onartu eta adierazi zuen Nafarroako Legeak ezkontza bezalako erakunde bat erabiltzen zuela supostu berri bat arautzeko, baina erakunde desberdin bat izaten jarraituz. Beraz, izatezko bikoteak ez direnez ezkontzaren parekoak, bi erakunde ezberdin diren heinean, estatuaren eskumena ez da zapaltzen²⁵. Honen harira, zaildu egin da ezkontzaren eta izatezko bikoteen arteko analogia erabiltzeko posibilitatea ere, bi egoera hauek parekagarriak ez direla adierazi baitzuen Auzitegi Konstituzionalak.

Bestalde, Konstituzio Auzitegiaren 93/2013 epaiak, maiatzaren 23koak, ebatzi du Konstituzioaren kontrakotzat joko direla beste bizikidearen esparru juridikoan edo haren ondasunean eragina duten eskubideak esleitzen dituzten edo murrizketak ezartzen dituzten arauak, baldin eta arau horiek aplikatu badaitezke eragindakoei horren inguruko borondaterik adierazi gabe²⁶. Izan ere, aztertutako Nafarroako Legean hainbat xedapen bertan behera geratu ziren haien izaera inperatiboa dela eta²⁷. Nortasunaren garapen askerako eskubidea ez urratzeko, auzitegiak ezartzen du Autonomia Erkidegoek ezarritako xedapenak ezingo direla

²⁵ 93/2013 Epaiak, 2013ko maiatzaren 23koa: “*Equiparar, en cuanto supone tomar como modelo determinados aspectos de una realidad preexistente para aplicarla a un supuesto de hecho distinto y en un ámbito de competencia propia, es algo conceptualmente distinto a regular una institución, en este caso, el matrimonio.*”

²⁶ ASUA GONZALEZ, C. I., “Familia, derecho de familia e instituciones para la convivencia”, *Manual de Derecho Civil Vasco*, op. cit., 255. orr.

²⁷ Nafarroako Legean bertan behera geratutako xedapenei buruz ikusi: 93/2013 Epaiak, 2013ko maiatzaren 23koa: “*Para efectuar tal análisis hemos de acudir a las normas que establecen el ámbito subjetivo de aplicación de la Ley, contenidas esencialmente en su art. 2 donde, tras recoger una definición de pareja estable «a efectos de la aplicación de esta Ley Foral» (apartado 1), se ofrece en el párrafo primero del apartado 2 una especificación de dicha definición, señalando en qué supuestos asigna el legislador navarro a una pareja la condición de estable ipso iure. Los dos primeros supuestos –un año de convivencia o hijos en común– conducen a la atribución ex lege de la condición de pareja estable por la mera concurrencia de alguna de tales circunstancias, dando lugar a una calificación jurídica de determinadas situaciones de hecho, a la que se asociará la aplicación del contenido de derechos y obligaciones incluido en la regulación legal, prescindiendo de la voluntad conjunta de los integrantes de la unión de hecho de someterse a las previsiones de la Ley Foral. Lo cual es claro que no resulta respetuoso del derecho fundamental consagrado en el art. 10.1 CE. Únicamente resultaría acorde con tal derecho y respetuoso de la libre voluntad de los integrantes de la pareja, una regulación de carácter dispositivo, como es la que se acoge en el tercero de los supuestos enunciados en párrafo primero del art. 2.2 de la Ley Foral, referido a las parejas que hayan expresado en documento público su voluntad de constituirse como pareja estable; supuesto que los propios recurrentes entienden que respeta la libre voluntad de los sujetos.*”

derrigorrezkoak izan, konstituziokontrakoak izan ez daitezten (EK 10.1 artikulua)²⁸. Hortaz, baldintza hauek betetzen diren neurrian, alegia, xedapenezkoak diren arauak soilik ezartzen diren neurrian posiblea da Autonomia Erkidegoek haien araudi propioa ezartzea izatezko bikoteen egoera arautuz²⁹.

4.2 2/2003 Euskal Legea, Izatezko Bikoteak arautzen dituen

2003 ko maiatzaren 7an Eusko Legebiltzarrak 2/2003 Euskal Legea, izatezko bikoteak arautzekoa (IBL) onartu zuen, gerora 5/2015 Legeko bigarren xedapen gehigarriak erreformatu zuena. EAEn ezarritako izatezko bikoteen arauketa aztertzeari ekin baino lehen, komeni da argitzea, ASUA GONZÁLEZ-ek adierazten duen bezala, erabilitako terminoaren zehaztasun falta. Esan bezala, Estatuko araudiaren falta dela eta, Autonomia Erkidego bakoitzak bere eraentza propioa sortzearen alde egin du, more uxorio bizikidetzaren eredu hauek arautzeko. Zenbait Autonomia Erkidegoek “bikote egonkor” terminoa erabili izan dute, euskal Legean aldiz, hain egokia ez den “izatezko bikote”. Hala ere, kontuan hartuta euskal Legean aztertuko dugun bezala “izatezko bikote”tzat erregistratutako bikoteei erreferentzia egiten zaiela, “izatezko bikote” hitzaren erabilera ez litzateke egokia izango. Beste hitz batzuetan esanda, erregistratzean araudi bat aplikagarri izango zaie, eraentza juridiko baten menpe geratuz, momentu horretatik aurrera ez da ulertzen “izatezko” terminoa erabiltzea, jada ez baita arautu gabeko egoera bat. Esandakoa dela eta, egokiagoa litzateke “bikote egonkor” erabiltzea, hala ere, lanean zehar “izatezko bikote” erabiliko dut, euskal legeak hautatutako terminoa delako azken finean³⁰.

²⁸ 93/2013 Epaia, maiatzaren 23koa: *“El problema queda, por tanto, cifrado en los límites que la propia esencia de la unión de hecho impone al legislador cuando éste decide supeditar su reconocimiento a ciertas condiciones o atribuir determinadas consecuencias jurídicas a tal unión. Obviamente, el límite principal con el que se tropieza es la propia libertad de los integrantes de la pareja y su autonomía privada, por lo que una regulación detallada de los efectos, tanto personales como patrimoniales, que se pretendan atribuir a esa unión, puede colisionar con la citada libertad, si se impusieran a los integrantes de la pareja unos efectos que, precisamente, los sujetos quisieron excluir en virtud de su decisión libre y constitucionalmente amparada de no contraer matrimonio. Por ello, el régimen jurídico que el legislador puede establecer al efecto deberá ser eminentemente dispositivo y no imperativo, so pena de vulnerar la libertad consagrada en el art. 10.1 CE. De manera que únicamente podrán considerarse respetuosos de la libertad personal aquellos efectos jurídicos cuya operatividad se condiciona a su previa asunción por ambos miembros de la pareja.”*

²⁹ BERIAIN FLORES, I., “Las uniones no matrimoniales y el derecho al libre desarrollo de la personalidad (A propósito de la sentencia del Tribunal Constitucional 93/2013, de 23 de abril)”, *Derecho privado y Constitución*, 28. zk., 2014, 152. orr. *“el no ser sorprendido por un estatus no deseado se logra con un consentimiento constitutivo y no con limitar las normales facultades de un legislador a la hora de establecer un régimen jurídico para una relación a la que las partes han consentido 14.”*

³⁰ ASUA GONZALES, C. I., “Familia, derecho de familia e instituciones para la convivencia”, *Manual de Derecho Civil Vasco, op. cit.*, 248-249. orr.

Esan bezala, batzuetan bi pertsonen haien arteko harreman afektibo-sexual batean oinarritutako unitate egonkor bat osatzen dute, baina ez dute ezkontza-kontratu batean formalizatzen³¹. Ezkondu gabeko baina izatezko bikote gisa ulertzen den bikotearen funtsezko baldintza *more uxorio* elkarbizitza da, bizitza sentimental egonkorra eskatzen duen bizi-komunitatea alegia³².

Aurreko atalean azaldu bezala, Estatuko Zuzenbideak ez du ezartzen *more uxorio* bizikidetzaren araubide zibilik, baina Zuzenbide zibilean eskumena duten autonomia-erkidegoek bikote egonkorren barne-eraentza zibila arautu dute. Arestian esandakora bueltatuz, Euskal Autonomia Erkidegoan, izatezko bikoteak arautzen dituen 2/2003 Legeak arautu du hori, eta euskal Zuzenbide zibilari buruzko ekainaren 5eko 5/2015 Legearen bidez erreformatu. IBLk, Euskal Autonomia Erkidegoan ezkondu dauden eta ezkondu gabe dauden bikoteak parekatzen ditu arlo batzuetan jasotako berme edo ondorio juridikoei begira. Gauzak horrela, esan daiteke 2/2003 eta 5/2015 euskal Legeei esker, erregistratutako izatezko bikoteen egoera nabari hobetu dela oinordetza babesei begira, ezkontzarekin parekotasuna lortuz eta aurretik ez zituzten zenbait babes onartuz. Izatezko bikoteei buruzko euskal legearen arabera, lege hau indarrean sartu aurretik Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako lege eta araudi guztietan ezkontzari buruz egindako aipamenak izatezko bikoteei buruz ere egindakoak badirela ulertuko da³³. Bestalde, 2/2003 legean berriaz arautzen ez dituen gai guztietan, izatezko bikoteak ezkontzarekin parekatuta daudela ulertuko da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoekin izan ditzaketen harreman juridikoetan, indarrean dagoen araudia aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen muga bakarrekin³⁴.

IBLko 2. artikulua izatezko bikoteen kontzeptua eta aplikazio eremua zehazten ditu eta 3. artikulua bikotearen eraketa eta egiaztapenerako baldintzak ezartzen ditu. Artikulu bi hauek elkarrekin hartuta ondoriozta dezakegu "legezko" izatezko bikoteei, alegia, legeak ezarritako betekizunak betez eratutakoei, dagozkien ondorio juridikoak aplikagarri

³¹ 2/2003 Legea, maiatzaren 7koa izatezko bikoteak arautzekoa: Zioen azalpena

³² 550/1998 AGE, 1998ko ekainaren 4koa "...no cabe olvidar que la unión "*more uxorio*" que formaron los litigantes se caracterizó, como bien se dijo en la sentencia de instancia, por una vida sentimental estable y duradera, en la que aquellos se comportaron como si de un verdadero matrimonio se tratara, llegando a crear vínculos paternofiliales y, por ende, familiares dignos de protección."

³³ 2/2003 Legea, maiatzaren 7koa, izatezko bikoteak arautzekoa: Lehen Xedapen Gehigarria

³⁴ 2/2003 Legea, maiatzaren 7koa, izatezko bikoteak arautzekoa, Bigarren Xedapen Gehigarria

suertatzeko beharrezkoa izango dela izatezko bikote moduan inskribatzea³⁵. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroa³⁶ sortu zen, 123/2004 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko izatezko bikoteen erregistroa onartzen duena.

Esan bezala, IBLren 2.artikuluaren arabera, izatezko bikotea bi pertsonen arteko elkartze askearen ondorioa da eta izatezko bikotea izateko betekizun hauek ezartzen dira: *“Lege hau aplikatzeko, izatezko bikotea da bi pertsonaren arteko elkartze askearen ondorioa; pertsona horiek adinez nagusi edo adingabeko emantzipatuak izan behar dute, gaitasun osoa izan behar dute, eta ezin dute euren artean lerro zuzeneko odol- edo adopzio-ahaidetasunik eduki, ez eta alboko lerroko bigarren mailako odol-ahaidetasunik ere. Harreman sexual edo afektiboa izan behar dute elkarren artean, eta berdin izango da pertsona horiek sexu berekoak edo desberdinekoak izatea. Gainera, bikoteko kideek, ez bata ez besteak, ezin dute ezkontza edo izatezko bikotearen bidezko loturarik izan beste inorekin ere”* (2/2003 Legeko 2.1 artikulua).

Azkenik, 2/2003 Legearen konstituzionalitateari begiratu behar diogu. Aurreko atalean aipatu dugun AG 93/2013 Epaiaren arabera, Autonomia Erkidegoek izatezko bikoteen eraentza arautu dezakete, betiere, derrigorrezko araurik inposatzen ez dituzten bitartean, bikotekideei ezin baitzaie aplikatu aldez aurretik espreski onartu ez duten lege-araubiderik. Beraz, ematen du ez dela nahikoa bikote izateko adostasuna adierazte soilarekin; beren beregi adierazi behar dute aplikagarri izango zaien eraentzarekiko adostasuna. Hori dela eta, legegileak ezar dezakeen araubide juridikoa xedatzailea izan beharko da, EK 10.1 urratu ez dadin³⁷. Beste

³⁵Izatezko bikotearen eraketa eta egiaztapenerako baldintzak zeintzeuk diren jakiteko, ikusi 2/2003 Legea, maiatzaren 7koa, izatezko bikoteak arautzeko, 3. artikulua:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroa sortuko da, eta hor izena ematen duten bikoteak legez eratu direla joko da; beraz, izena ematen ez duten bikoteei ez zaie lege hau aplikatuko.

– Hala bikotearen eraketa, arau hauen xede dena, nola bikote-harremanaren eduki juridiko-patrimoniala Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroak emango duen ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira.

– Udal-erregistroak dituzten herrietan egiten diren izen-emateek eraketa-ondorio berbera izango dute, baldin eta izena ematerakoan lege honetan ezarritako eskakizunak bete badira; Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroak egiaztatuko du eskakizun horiek bete direnez.

³⁶ Euskadi, A. D. J. E. (f. m.). *Izatezko elkartzeen erregistroa - Justizia*. Justizia Web ataria. Eskuragarri hemen: www.justizia.eus

³⁷ BERIAIN FLORES, I., “Las uniones no matrimoniales y el derecho al libre desarrollo de la personalidad (A propósito de la sentencia del Tribunal Constitucional 93/2013, de 23 de abril)”, *Derecho privado y Constitución*, op. cit., 142 orr.: “Finalmente, el modelo de pareja inscrita o formalizada en documento público (opt-in), que regula la situación de la unión formalizada (por inscripción o en documento público) mediante una ley específica que, a diferencia de la anterior, dota al estatuto de la unión de un régimen más complejo, aún no enteramente imperativo. En este último modelo, las parejas se constituyen formalmente en uniones estables y se les aplica el régimen establecido por la normativa en cuestión. Las parejas de hecho no formalizadas, en

hitz batzuetan; ezin da ezarri aplikatu beharreko lege-araubide bat, hura berariaz onartzen ez bada³⁸.

Ondorioz, araubide juridikoak arau inperatiboak barneratzen baditu, hauek aplikagarriak izateko bikotekideek berariaz onartu beharko dituzte. Hau da, hain zuzen ere, 2/2003 Legean gertatzen dena, onartu beharreko arau inperatiboak barneratzen dituen heinean. Hortaz, 2/2003 Legean, izatezko bikote izateko nahi edo borondateaz gain izatezko bikotea erregistro batean (Euskal Autonomia Erkidegoko Bikoteen Erregistroan edo izatezko bikoteak dituzten herrietako edozein udal-erregistrotan) inskribatzea ere eskatzen da (2/2003 Legearen 3.artikulua), legearen zenbait xedapenen izaera inperatiboa dela eta, hauek berariaz onartu behar baitira. Erregistratze hori izatezko bikoteen araudia aplikatzeko baimentzat hartzen da, araudiaren aplikazioarekin ados daudela baieztatuz Laburbilduz, bikotea erregistratzerakoan, izatezko bikoteen araudipean gelditzea onartzen duela ulertzen da, eta beraz, ez zaizkie araurik inposatzen, eurak baitira araudi horren menpe egotea erabaki dutenak, konstituzioarekiko urraketak saihestuz³⁹.

V. EZKONTIDE ALARGUNA ETA BIZIRIK DIRAUCEN IZATEZKO BIKOTEAREN BABESA 5/2015 LEGEAN

Behin euskal Zuzenbide Zibilararen Legearen nondik norakoak ezagututa, eta izatezko bikote eta ezkontidearen arteko parekatzea aztertuta, borondatezko eta legezko oinordetzan jasotzen duen babesaren inguruan zertzelada orokor batzuk emango ditut. Hasi aurretik, eta aurreko atalean ezkontidea eta izatezko bikotearen parekotasunari buruz esandakoa kontuan hartuz, hurrengo atalean “ezkontide alargun” aipatzen denean, besterik ez bada esaten, bizirik dirauen izatezko bikotekideari ere erreferentzia egiten zaiola ulertuko da.

cambio, no quedan sujetas a la normativa de pareja, con independencia de que puedan o no tener reconocidos ciertos efectos en otros ámbitos.”

³⁸ ASUA GONZÁLEZ, C. I., “La STC 93/2013, de 23 de mayo, y la regulación del régimen interno de las convivencias no matrimoniales en la Comunidad Autónoma del País Vasco”, *Herri-Arduralaritzako Euskal Aldizkaria*, 103.zb, 2015, 30. orr.

³⁹ ASUA GONZÁLEZ, C. I., “Familia, derecho de familia e instituciones para la convivencia”, *Manual de Derecho Civil Vasco, op. cit.*, 249-250. orr.

Sarreran aipatuenez, 5/2015 Legearen aurreko araudiak, hau da, EHFZZLk, hiru foru edo ordenamendu zibil ezberdin barnebiltzen zituen, eta, horiez gain, Estatuko Zuzenbide zibila ere aplikatzen zen EAeko hainbat tokietan, oinordetza estatutu ezberdinen koexistentzia ekarriz. Alargunari dagokionez, oinordetza araudi ezberdinak egoteak suposatzen zuen, jasotako babes maila ere ezberdina zela, beraien auzotasunaren arabera.

Lege berriaz geroztik, euskal auzotasun zibila duen alargun (eta bikote) orori aplikagarri zaion Oinordetza Zuzenbide bakarra sortu da, arestian zegoen aniztasunari aurre eginez, (nahiz eta Bizkaiko eta Aiarako foruetatik eratorritako arau bereziak mantendu diren), testamentugilearen askatasuna zabalduz⁴⁰. Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko Legeak, Euskal Autonomia Erkidego osora zabaldu du oinordetza itunak erabiltzearen aukera (EZZL 100.artikulua) edota testamentu mankomunatua (EZZL 24.artikulua), komisario bidezko oinordetza edota hil-buruko testamentua baliatzearen aukera (lehen bizkaitar forudunentzat bakarrik zena)⁴¹.

Azter dezagun, beraz, lege berriak alargunaren egoeran erakarritako aldaketak borondatezko eta legezko oinordetzan.

5.1 Borondatezko oinordetza

EZZLko 18. artikulua arabera, oinordetza gauzatzen da testamentuaren bidez, oinordetza-itunaren bidez edo bi horiek izan ezean, legearen xedapenen bidez. Legeak, beraz, borondatezko oinordetzari lehentasuna ematen dio. Ondasunak zati batean testamentu bidez eta zati batean oinordetza-itun bidez xedatu badira, testamentuak ez du oinordetza-ituna ezeztatzen, baina oinordetza-itunak baliorik gabe utziko du horren aurka doan testamentua (EZZL 18.2 artikulua). Hortaz, testamentua eta ituna bat etor daitezke elkarren artean, eta horietako edozein edo biak batera, legezko oinordetzarekin batera osatu oinordetza. Baina kausatzaileak emandako negozioen mortis causa borondatearen edukia bateraezina den kasuetan, arauak kontuan hartzen du itunaren nagusitasuna, haren kontratu-izaeran oinarrituta⁴².

⁴⁰ 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzkoa: Zioen azalpena

⁴¹ GALICIA AIZPURUA, G., “Delación hereditaria y sucesión legal en el País Vasco”, *Manual de Derecho Civil Vasco*, op. cit., 297. orr.

⁴² GALICIA AIZPURUA, G., “Delación hereditaria y sucesión legal en el País Vasco”, *Manual de Derecho Civil Vasco*, op. cit., 302-303. orr.

Borondatezko oinordetzaren mamian sartu gabe, atal honetan ezkontide alargun eta bizirik dirauen izatezko bikotekideak izan ditzaken babesak soilik aztertuko ditut. Hortaz, kausatzaileak, nahi izanez gero, bere bikotekideari babes handiagoa emateko bere esku dituen erakunde juridikoak aipatuko ditut, ikuspegi orokor batetik baino ez bada ere. Helburu honekin, komisario bidezko oinordetza, gozamen unibertsala eta testamentu mankomunatu ditugu aipagarri, ezkontide alargunari babesteko aukera ematen baitute.

a) Komisario bidezko oinordetza

Testamentugileak komisario baten edo batzuen ardurapean jar ditzake oinordekoaren izendapena, ondasunen banaketa, eta, oro har, ondasunak oinordetza bidez eskualdatzeko berak dituen ahalmen guztiak (EZZL 30.artikulua). 5/2015 Legearen aurrekari zen 3/1992 Legean *fiducia sucesoria* oinordetza generoko hiru modalitate zeuden, Bizkaiko Foruaren komisario bidezko oinordetza (3/1992 Legeko 32.artikulua), Aiarako Foruaren gozamen ahaltsua (3/1992 Legeko 140.artikulua) eta Gipuzkoako Foruaren komisario bidezko agindua (3/1992 Legeko 164.artikulua⁴³), eta hirurak erabili ahal ziren ezkontide alargunaren oinordetza-egoera indartzeko⁴⁴. Gaur egun indarrean dugun legeak, 5/2015, oinordetza komisario bitartez bideratzeko aukera EAE osora zabaldu du, EZZL-ko “Komisario bidezko oinordetza” atalean, (hala ere, Aiarako Forutik eratorritako fiduziaren arauketa mantentzen da legeko 91-95 artikuluen artean)⁴⁵.

ASUA GONZÁLEZ-en hitzetan, komisario bidezko oinordetzaren jatorrizko funtzioa familiaren ondarean oinorde egokiaren izendapena bideratzea zen, izendapena komisarioaren eskuetan utziz eta, horrela, izendapenaren momentua atzeratuz⁴⁶.

⁴³ Gogoratu, Gipuzkoako Forua 3/1992 Legeari beranduago atxiki zitzaioala, 3/1999 Legea, azaroaren 16koa, Euskal Herriko Zuzenbide Zibilar buruzko legea aldatzekoa, Gipuzkoako Foru Zibilar dagokiona-ren bidez. Ikusi GIL RODRÍGUEZ, J., “Del Derecho Foral al Derecho civil vasco”, *Manual de Derecho Civil Vasco, op. cit.*, 33.orr. : “*Precisamente, gracias a la incorporación de este único precepto-Libro (Libro III Del Fuero Civil de Gipuzkoa), ya puede rotularse la Ley 3/1992 como de Derecho Foral del País Vasco...*”.

⁴⁴ GIL RODRÍGUEZ J., “La posición del viudo y del conviviente supérstite”, *Manual de Derecho Civil Vasco, op. cit.*, 286-287. orr.

⁴⁵ GIL RODRÍGUEZ J., “La posición del viudo y del conviviente supérstite”, *Manual de Derecho Civil Vasco, op. cit.*, 287 orr.

⁴⁶ Komisario bidezko oinordetzaren jatorrizko funtzioari buruz, ikusi ASUA GONZÁLEZ, C.I., “La ordenación por comisario”, *Manual de Derecho Civil Vasco, op. cit.*, 361-362 orr. : “*La función originaria de esta tipo de fiducia sucesoria era la de conseguir diferir en el tiempo la designación del sucesor idóneo en el patrimonio familiar, obviando así las dificultades que a tal efecto supondría la juventud de los eventuales sucesores al*

Nahiz eta komisario edozein pertsona izendatu daitekeen, askotan kausatzaileak bere ezkontidea izendatu ohi du (erakunde honek historikoki alarguntza arloko jatorria izan baitu). Horrela, erakunde honek ezkontide alargunak oinordetza barruan duen posizioa indartu du⁴⁷. Ikus dezagun nola lortzen den hau.

Komisario bidezko oinordetzan, legeak espreski aitortzen die ezkontide alargunei komisario bezala elkar izendatzeko ahalmena (EZZL 31.2 artikulua). Gainera, EZZL 37.2 artikulua arabera testamentu egileak komisario bat izendatu badu, baina administratzailezik ez, izatezko bikote edo ezkontideak jarauntsia administratu eta ordezkatu du (EZZL 37.2 artikulua). Are gehiago, komisarioa ezkontide alarguna edo izatezko bikotea den kasuetan, honek oinordetzaren administrazioa, ordezkapena eta gozamina izango du (EZZL 41.3 artikulua) eta, seme-alaba komunaren artean banatzeko baldin bada, ezkontide-komisarioak jarauntsiko ondasunak xedatu ditzake ere (EZZL 43.2 artikulua). Bestalde, bere kargua betetzeko epea mugagabea da, salbuespen bezala, orokorrean kausatzaileak ezarritako epea edo eperik ezartzen ez duen kasuetan heriotzatik urte bateko epea ezartzen baita (EZZL 41. artikulua). Honekin, argi ikus dezakegu, komisarioa ezkontide alargun edo bizirik dirauen izatezko bikotea den kasuetan, legeak abantaila nabariak ematen dizkiola, hauen posizioa indartuz eta oinordetzan babes gehiago eskainiz.

Azkenik, aipatzekoa da komisarioaren boterea azkentzeko kausen artean ahalordea eman ondoren; banatze, dibortzio edo deuseztasun demanda aurkeztea (EZZL 45.3 artikulua), ezkontide komisarioaren ondorengo ezkontzak edo izatezko ezkontza-bizitza, zein ezkontzaz kanpoko seme-alabak izatea (EZZL 45.4 artikulua) eta izatezko bikotearen desegitea (salbu ezkontzarako den kasuetan) (EZZL 43.9 artikulua) aipatzen direla, komisario bidezko oinordetzak duen kutsu familiarra agerian utziz⁴⁸.

momento del fallecimiento del causante; a lo que se unía la posibilidad existiendo medios, de atender mejor a las necesidades que pudieran ir generándose entre los posibles sucesores.”

⁴⁷ ASUA GONZÁLEZ, C. I., “La ordenación por comisario”, *Manual de Derecho Civil Vasco*, op. cit., 361-362 orr.

⁴⁸ ASUA GONZÁLEZ, C. I., “La ordenación por comisario”, *Manual de Derecho Civil Vasco*, op. cit., 379.orr.

b) Gozamen unibertsala

Euskal legedi zibilak, EZZLren aurrekaria den 3/1992 Legearen 61. artikuluan, gozamen unibertsala ezkontide alargunari egozteko formula zabal baten alde egin zuen, senipartearen edo ondasun tronkalen ukiezintasunari eragiten ez ziona⁴⁹.

EZZL 57.artikuluan⁵⁰ adierazitako usufruktu unibertsalaren bidez, euskal legeak kausatzaileari aukera ematen dio ezkontide zein izatezko bikoteari bere ondasun guztien gaineko gozamen unibertsala xedatzeko. Ahalmen hau 5/2015 Legearen 55. artikuluan ezarriako kausa berdinegandik iraungiko da, senipartearen azkentze kausengatik hain zuzen ere (EZZL 57.1 artikulua). Ikus dezakegunez, gozamen unibertsala ezkontide alargunaren posizioa babesteko instrumentu oso ahaltsua dugu, posible baita kausatzaileak, beren beregi horrela adierazten badu, jarauntsiaren parte aske osoa ezkontideari uztea, eta horrez gain, seme-alaben senipartearen gaineko gozamen eskubidea, alargunaren posizioari ia babes osoa eskainiz (EZZL 57.I eta II.artikulua)⁵¹.

c) Testamentu mankomunatua

Testamentu mankomunatua bi pertsonak, elkarrekin adostuta, beren ondasunak xedatzea erabakitzen dutenean gertatzen da (EZZL 24 artikulua), hau da, biek dokumentu berean adieraziko dute haien azken borondatea. Testamentu mankomunatuaren abantaila teorikoek zerikusia dute familia-loturen indartzearekin eta besteen arteko segurtasunarekin, edo familiaren ondarea kontserbatzearekin⁵². Testamentu mota hau aipagarria da gure gaiari dagokienez, ezkonduen egoerarekin lotu izan delako historikoki, Bizkaiko Foru Zaharrear kasu⁵³. Are gehiago, 3/1992 Legeko 24.artikuluak testamentu mota hau ezkontideetara

⁴⁹ LLEDÓ YAGÜE F., “Artículo 57”, *Análisis sistemático de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de derecho civil vasco-n*, A.M. Urrutia Badiola (zuz.), F. Lledó Yagüe (zuz.), O. Monje Balmaseda (zuz.) eta A.M. Urrutia Badiola (koord.), Dykinson, Madrid, 2020, 509 orr.

⁵⁰ 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa, 57. artikulua: “*Kausatzaileak bere ezkontideari legatu gisa eman ahal izango dio bere ondasunen gaineko gozamen unibertsala; gozamen hori azkenduko da, 55. artikuluko senipartea zein arrazoik azkendu eta arrazoi berberen ondorioz. Testamentugileak beren-beregi xedatutakoa salbu, legatu hori eta xedapen askeko zatiaren gainekoa bateraezinak izango dira. Kausatzaileak bi legatu horiek hautabidez xedatzen baditu, alargunak edo bizirik dirauen izatezko bikotekideak egingo du aukeraketa.*”

⁵¹ GIL RODRÍGUEZ J., “La posición del viudo y del conviviente superviviente”, *Manual de Derecho Civil Vasco*, op. cit., 283. orr.

⁵² TENA PIAZUELO I., “Artículo 24”, *Análisis sistemático de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de derecho civil vasco*, op. cit., 290. orr.

⁵³ GALICIA AIZPURUA, G., “Sucesión Testamentaria en el País Vasco”, *Manual de Derecho Civil Vasco*, op. cit., 323. orr.

mugatzen zuen⁵⁴. Testamentu mankomunatua erabiltzen duten ezkontideek edo izatezko bikoteko kideek, normalean, beren ondasun erkideak jarausleengandik babesteko tresna bezala erabiltzen dute, testamentugileetako batek bizirik dirauen bitartean bikotearen ondasun komunak mantentzeko⁵⁵.

5.2 Legezko Oinordetza

Esan bezala, alargunaren eta bizirik dirauen izatezko bikotearen oinordetza-egoera orokortasunean ulertzeko, legezko oinordetzan jasotzen duen tratua aztertuko dugu. Legezko oinordetza kausatzaileak bere ondasunak xedatu ez dituen kasuetan aplikatuko den oinordetza banaketa metodoa da (EZZL 110 artikulua). Gerta liteke ondasun guztiak legezko oinordetza bidez banatzea, edo bestalde, zenbait gauza borondatez xedatuak izatea eta gainontzeko ondasunen banaketa legezko oinordetza bidez egitea. Beraz, esan daiteke ondasunak banatzeko bide subsidiarioa dela, 5/2015 euskal Legeko IV.Kapituluan arautzen dena.

Hasteko, kontuan hartu behar da 5/2015 Legeak legezko oinordetzan bi sistema desberdin bereizten dituela. Alde batetik euskal auzotasun zibila duen orori aplikagarri den sistema orokorra dugu, hildakoaren ahaideak hartzen dituen oinordeko bezala, ahaide izate soilagatik. Beste alde batetik, bizkaitar tokiko auzotasuna dutenei ezarritakoa (gogoratu Aramaio eta Laudion Bizkaiko Forua aplikatzen dela): ahaidetasunaz gain, ondasunak jatorrizko familian mantentzeko, tronkalitatearen printzipioari men eginez⁵⁶.

Ondasun ez-tronkalen kasuan, legezko oinordetzarako ezartzen den hurrenkera, EZZLko 112.artikuluaren ezartzen da⁵⁷. Hurrenkera honetan ezkontide alargun zein bizirik dirauen

⁵⁴ TENA PIAZUELO I., “Artículo 24”, *Análisis sistemático de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de derecho civil vasco*, op. cit., 295. orr.

⁵⁵ BARRUETABEÑA ZENEKORTA, M., El testamento mancomunado o de hermandad en el Derecho civil del País Vasco, Tirant lo Blanch, Valencia, 2013, 129. orr.

⁵⁶ GALICIA AIZPURUA, G., “Delación hereditaria y sucesión legal en el País Vasco”, *Manual de Derecho Civil Vasco*, op. cit., 307 orr.

⁵⁷ 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa:112.art: “Ondasun ez-tronkalen kasuan, legezko oinordetza gauzatzen da honako hurrenkera honetan:

1. Lehenengo eta behin, seme-alaba edo ondorengoen mesederako.
2. Alargunaren mesederako, legezko banantzerik edo modu sinesgarrian bi ezkontideen artean hitzartutako banantzerik izan ez denean, edo bizirik dirauen izatezko bikotekidearen mesederako, bikote hori azkendu denean bikotekideetatik bat hiltzearen ondorioz.
3. Aurrekoen mesederako.
4. Albokoen mesederako, laugarren graduaren barruan, odolkidetasunez zein adopzio bidez.”

izatezko bikotearen posizioa nabari hobetu da, bigarren lekuan deituak baitira, soilik ondorengoen atzetik. Honek aldaketa dakar Bizkaiako Foru⁵⁸ zein Kode Zibilarekiko⁵⁹, hauetan aurreko ahaideak ezkontide alargunaren aurretik kokatzen baitira.

Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko Legeak egindako aldaketak funtsean moldatzen du legezko oinordetza-panorama, ezkontidearen babes handiagoa eskatzen duen gizarte-errealitatera egokituz⁶⁰.

VI. EZKONTIDE ALARGUN ETA BIZIRIK DIRAUCN IZATEZKO BIKOTEA DERRIGORREZKO OINORDETZAN

Behin -gainetik bada ere- ezkontide alargunaren edo bizirik diraucn izatezko bikotekidearen egoera, borondatezko eta legezko oinordetzan aztertu ondoren, lan honen mamari eutsiko diogu: Zer babes eskaintzen zaio bizirik diraucn ezkontide edo bikoteari derrigorrezko oinordetzan?

Kausatzailearen xedatzeko askatasuna derrigorrezko oinordetzak mugatzen du, legeak jaraunse jakin batzuei, “nahitaezko oinordekoak”, ondasunen zati bat erreserbatzen dielako. Hortaz, kausatzaileak ezingo ditu bere oinordetzaren parte diren ondasun guztiak banatu, horien zati bat legez erreserbatuta geratuko delako, derrigorrezko oinordetzak ezarritako senipartea dela eta. Gainera, seniparte hau errespetatu behar izango da bai borondatezko oinordetzan baita legezko oinordetzan ere. Dena den, ez dugu senipartea debeku bezala ulertu behar, betebehar bezala baizik, kausatzaileak ez badu bere kabuz betetzen legeak nahitaezko oinordeko edo senipartedunei haiei dagokiena eskatzeko tresna juridikoa eskaintzen baitie⁶¹.

⁵⁸ 3/1992 Legea, uztailearen 1ekoa, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzkoa, 1.Liburua: Bizkaiko Foru Zuzenbide Zibila, 69. artikulua: “*A falta de descendientes y ascendientes sucederá el cónyuge viudo, con preferencia a los colaterales, en todos los bienes no troncales*”.

⁵⁹ BERCOVITZ RODRIGUEZ-CANO, R., “Sucesión intestada”, Manual de Derecho Civil: Sucesiones-n, R. Bercovitz Rodríguez-Cano (koord.), Bercal, Madrid, 2021, 251-251. orr. : “*La sucesión intestada a favor del cónyuge viudo se regula en los arts. 943 a 945 CC. El llamamiento del cónyuge viudo como heredero a título universal se produce a falta de descendientes y ascendientes, pero, desde la reforma operada por la Ley 11/1981, tiene prioridad frente a todos los colaterales, incluidos hermanos e hijos de hermanos, en atención a la actual realidad social, que atiende a la familia nuclear frente a la extensa como centro de las relaciones humanas. Lo anterior ha de entenderse sin perjuicio de la legítima consistente en el usufructo de una cuota hereditaria, que le corresponde en concurrencia con cualesquiera parientes del difunto*”.

⁶⁰ GONZÁLEZ SAN SEBASTIÁN T., “Artículo 110”, *Análisis sistemático de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de derecho civil vasco*, op. cit., 885. orr.

⁶¹ ATXUTEGI GUTIÉRREZ, J., “Senipartea. Kode Zibilaren eta foru zuzenbideen eraentza juridikoen arteko kontrastea”, *Zuzenbidea ikasten. Irakaskuntzako aldizkaria*, 1. zk., 2014, 10. orr.

Hau da, kausatzaileak nahitaezko oinordekoei dagokiena gordetzen ez badie jarauntsia antolatzean, legea arduratzen da senipartedun horiei dagokiena asetzeko bideak eskaintzen. Gainera, senipartedunek haiei dagokiena jarauntsle tituluz, doako tituluz naiz legatudun gisa jaso dezakete. Euskal Zuzenbide zibilean nahitaezko oinorde horiek, hau da, senipartea jasotzeko eskubidea dutenak seme alabak edo ondorengoak (edozein gradukoak) eta ezkontide alargun eta bizirik dirauen izatezko bikotekidea dira (EZZL 47. artikulua).

Behin baino gehiagotan aipatu den bezala, gogoratu beharrekoa da 2015eko urriaren 3ra arte, EAEn lau derrigorrezko oinordetza sistema desberdintzen zirela, hiritar gehienak Kode Zibilpean zeuden, baina foru-ordenamendu ezberdinak zeuden, Gipuzkoan baserri baten titular zirentzeko, Bizkaiko Lur Lauan bizi zirentzako eta Aiarako haranean bizi zirentzako⁶². Derrigorrezko oinordetzari dagokionez, EZZLn aurreikusten den senipartea ezberdintasun nabari ditu aurreko legearekiko, hau da, 3/1992 legearekiko. Hasteko, aurrekoen senipartea desagertzen da eta beraz, gurasoak eta aurrekoak ez dira jada nahitaezko oinordeko izango. Honako hau oso berrikuntza handia da, izan ere, espainiar Zuzenbide zibilean aurrekoekiko senipartea mantentzen da Kode Zibileko 807 eta 809 artikuluetan arautzen den bezala. Gainera, ondorengo senipartearen kuota nabarmen murriztu da aurrekoarekin alderatuta (Bizkaiko Forupean, ondorengoei zegokien senipartea $\frac{4}{5}$ ekoa zen⁶³, Kode Zibilpekoentzat bestalde jarauntsiaren $\frac{1}{2}$ edo $\frac{1}{3}$ ezkontide alargunarekin pilaketa balego⁶⁴). Gainera, ondorengo senipartea kolektiboa izango da, hau da, kausatzaileak ondorengo senipartea errespetatu beharko du, baina senipartedun baten edo gehiagoren artean aukera dezake eta gainerakoak baztertu, esanbidez edo isibidez (EZZL 48.2 artikulua). Baina dudarik gabe, gure lanaren muinari begira, berrikuntza nabariena alarguna edo bizirik dirauen izatezko bikotearen egoeraren hobekuntza izan da, bi figura hauen ohiko senipartea (gozamen eskubidea) handitzeaz gain, biztantze eskubide berri bat aitortzen zaielako, “plus” bat bezala.

Aipatu bezala, alarguna edo bizirik dirauen bikotekidearen kasuan, derrigorrezko oinordetzak beste bi eskubide aitortzen dizkio: gozamen eskubidea eta biztantze eskubidea. Beraien arteko

⁶² GALICIA AIZPURUA, G., “Notas a la Ley 5/2015, de 25 de Junio, de Derecho Civil Vasco”, *Actualidad Jurídica Iberoamericana*, 4. zk., 2016, 315. orr.

⁶³ 3/1992 Legea, uztailaren 1ekoa, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzkoa, 55. artikulua: “Testamentu-egilearen ondasun guztien lau bostenek osatzen dute ondorengo senipartea.”

⁶⁴ 1889ko Errege Dekretua, Kode Zibila argitaratzen duena, 809 artikulua: “Constituye la legítima de los padres o ascendientes la mitad del haber hereditario de los hijos y descendientes salvo el caso en que concurrieren con el cónyuge viudo del descendiente causante, en cuyo supuesto será de una tercera parte de la herencia.”

harremana ez dago argi legegileak ez baitu argitu biztante eskubidea senipartear eb barne kokatzen den edo ez. Izan ere, alargun edo bikotearen gozamen eskubidea arautzen duenean “senipartea” deitzen dio (EZZL 52.artikuluak), baina ez du termino berdina erabiltzen biztante eskubidea arautzerakoan (EZZL 54.artikuluak). Edozein kasutan, ez dago zalantzarik biak derrigorrezko eskubideak direla⁶⁵.

Lanaren helburua ezkontide alargunen eta bizirik dirauen izatezko bikoteen derrigorrezko oinordetza eskubideak aztertzea denez, hauek banaka aztertuko ditut.

6.1. Senipartea: derrigorrezko gozamen eskubidea

EZZL 47. artikulua araberak, *“senipartedunak dira: seme-alabak edo ondorengoak, edozein gradutan; eta alarguna edo bizirik dirauen izatezko bikotekidea, horren gozamen-kuota dela bide, eta, betiere, beste jaraunsle-mota guztiekin batera”*. Ezkontide alarguna edo bizirik dirauen izatezko bikotearen seniparteari dagokionez, bestalde, EZZLko 52.artikuluak ondoko hau ezartzen du:

- “1. Alargunak edo bizirik dirauen izatezko bikotekideak gozamen eskubidea izango du, kausatzaileak utzitako ondasun guztien erdian gainean, ondorengoekin batera agertuz gero.*
- 2. Ondorengorik izan ezean, gozamina izango du, ondasunen bi herenen gainean.”*

5/2015 Legeko 10.artikulura bueltatuz, euskal auzotasun zibila gogoratu behar dugu, izan ere, eskubide honen aplikazioa ahalbidetzeko beharrezkoa da euskal auzotasun zibila izatea heriotzaren unean. Euskal auzotasun zibila kausatzaileak izan beharko du, eta honekin nahikoa izango da izatezko bikote edo ezkontidearen aldeko seniparte eskubideak sortzeko⁶⁶. Dakigunez, euskal Zuzenbide zibilak hutsuneak izatekotan, Kode Zibila izango da ordezkotara. Hortaz, Kode Zibileko 9.1 eta 9.8 artikuluetan⁶⁷ esan bezala, oinordetza

⁶⁵ Eztabaida honi buruz, GALICIA AIZPURUA, G., “Limitaciones a la libertad de disposición por causa de muerte”, *Manual de derecho civil vasco, op. cit.*, 395. orr.

⁶⁶1889ko uztailearen 24ko Errege Dekretua, Kode Zibila argitaratzen duena, 9.1. artikulua: *“1. La ley personal correspondiente a las personas físicas es la determinada por su nacionalidad. Dicha ley regirá la capacidad y el estado civil, los derechos y deberes de familia y la sucesión por causa de muerte.”*

⁶⁷1889ko uztailearen 24ko Errege Dekretua, Kode Zibila argitaratzen duena, 9.8 artikulua: *“8. La sucesión por causa de muerte se regirá por la Ley nacional del causante en el momento de su fallecimiento, cualesquiera que sean la naturaleza de los bienes y el país donde se encuentren. Sin embargo, las disposiciones hechas en testamento y los pactos sucesorios ordenados conforme a la Ley nacional del testador o del disponente en el momento de su otorgamiento conservarán su validez, aunque sea otra la ley que rija la sucesión, si bien las legítimas se ajustarán, en su caso, a esta última. Los derechos que por ministerio de la ley se atribuyan al*

Zuzenbidearen aplikazio eremua pertsonala izango da, kausatzailearen auzotasunari men eginez.

A) Kontzeptua eta objektua

Oro har, gozamen eskubideak ondasun bat erabili eta gozatzeko aukera ematen du, baina jabe titulua izan gabe, eskubide honen titularra ez baita jabe soila, gozameduna baizik⁶⁸. Hau da, alargun edo izatezko bikotekideak etxebizitzaren gainean gozamen eskubide bat hartzen badu, bertan bizitzeko eskubidea luke, baina ezin dio etxebizitza hori beste pertsona bati saldu edo alokatu etxebizitzaren jabearen baimenik gabe, berak ez baitu jabetza titulua, gozamedun soila den heinean. Hala eta guztiz ere, argitu beharrekoa da ezkontideak jabetza osoa ere jaso dezakela testamentu bidez, baina aztertzen ari garena legez bermatzen zaion gozamen eskubidea dela.

Ezkontide alargun edo bizirik dirauen izatezko bikoteari dagokion kuota desberdina izango da gainerako oinordeekiko pilaketaren arabera (EZZL 52 artikulua), beraz:

1. *Alargunak edo bizirik dirauen izatezko bikotekideak gozamen eskubidea izango du, kausatzaileak utzitako ondasun guztien erdien gainean, ondorengoekin batera agertuz gero.*
2. *Ondorengorik izan ezean, gozamena izango du, ondasunen bi herenen gainean*⁶⁹.

Objektuadi dagokionez, ezkontide edo bikotekidearen senipartearen gozamen eskubidearen dimentsio hauen jatorria 1992ko Bizkaiko Foruan dago, izan ere, bertako 61.artikuluari xedatzen ziren kuotak EAE osora hedatu izan dira 5/2015 legearekin⁷⁰. Honek hobekuntza nabaria ekarri du bai Kode Zibilpean, bai gainerako Foru Zuzenbidepean zeuden euskaldun alargunei. Gaur egun, euskal seniparteak alargunei eskainitako babesak Zuzenbide komunak eskaintzen duena baino handiagoa da. Kode Zibilpean alargunak jarauntsian seme-alaba edo

cónyuge superviviente se regirán por la misma ley que regule los efectos del matrimonio, a salvo siempre las legítimas de los descendientes.”

⁶⁸ 531/200 Epaia, 2000ko maiatzaren 30ekoa (Roj: STS 4377/2000): “*El derecho de usufructo otorga a su titular, en comparación con otros derechos reales similares, como el de uso y habitación, amplias facultades de goce y disfrute, que puede muy bien compartir, pero el derecho permanece íntegro y no por ello queda restringido o limitado, hasta el punto de que los nudos propietarios quedan prácticamente excluidos del disfrute, si se tiene en cuenta el artículo 489 del Código Civil*”.

⁶⁹ Artikulu honen azterketa sakonago bat ikusteko, ikusi LLEDÓ YAGÜE F., “Artículo 52”, *Análisis sistemático de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de derecho civil vasco*, op. cit., 490.orr.

⁷⁰ GALICIA AIZPURUA G., “Limitaciones a la libertad de disposición por causa de muerte”, *Manual de derecho civil vasco*, op. cit., 395. orr.

ondorengoekin batera agertzen bada, heren baten gaineko gozamenerako eskubidea izango du (KZ 834.artikulua); aurrekoekin pilatzen den kasuetan, jarauntsiaren erdiaren gaineko gozamen eskubidea izango luke (KZ 837. artikulua) eta ez badago beste nahitaezko oinorderik bi herenen gaineko gozamen eskubidea izango du(KZ 838. artikulua).

Gozamenarekin zamatutako ondasunei dagokionez, EZZZL 56.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, alargunaren edo bikotekidearen derrigorrezko gozamen eskubideak ez du eraginik izango senipartea ukitzeko ezintasunaren gainean, eta beraz ulertzen dugu, lehenik eta behin, ondorengoan legezko herena ordaintzeko esleitutako ondasunen gainean kargatuko dela, eta falta den horretan bakarrik zamatuko du parte askea⁷¹. Bestalde, ondasun tronkalei dagokionez, EZZZLren 70.3 artikulua arabera, *“alargunaren edo bizirik dirauen izatezko bikotekidearen senipartea ondasun ez-tronkalekin ordainduko da, eta, halakorik ez dagoenean, eta orduan bakarrik, ondasun tronkaletara jo ahal izango da, beharrezkoa den kopuruan.”*

B) Subjektua

Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko Legearen 52. artikulua arabera, eta lege-testu bereko 112.2 artikuluaekin lotuta, kausatzaileak hiltzean legez edo adostasunez banandu ez den ezkontideak izango du senipartea jasotzeko eskubidea, edo bizirik dirauen izatezko bikotekidearen kasuan, heriotzaren unean bikotea deseginda ez badago 2/2003 Legearen 18. artikulua arabera⁷².

Izatezko banantzeari dagokionez, adostutakoa eta modu frogagarrian jasotakoa izan beharko da. Adostasunari dagokionez, ezkontide batek bere kabuz inposatu arren, besteak inplizituki onartu duela ulertu behar da. Eta bigarren betekizunari dagokionez, beharrezkoa izango da hausturaren benetakotasuna egiaztatuta geratzea, eta edozein frogabide erabiliz, zalantzarik gabeko banaketa baten aurrean gaudela ondorioztatzea⁷³.

⁷¹ GALICIA AIZPURUA G., “Limitaciones a la libertad de disposición por causa de muerte”, *Manual de Derecho Civil Vasco, op. cit.*, 395-396. orr.

⁷² LLEDÓ YAGÜE, F., “Artículo 52”, *Análisis sistemático de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de derecho civil vasco, op. cit.*, 491. orr.

⁷³ GALICIA AIZPURUA, G., “Limitaciones a la libertad de disposición por causa de muerte”, *Manual de Derecho Civil Vasco, op. cit.*, 394.orr

C) Gozamen eskubidearen konmutazioa

EZZL 53.artikuluak alargun-gozamena komutatzeke aukera aurreikusten du. Ildo horretatik, jaraunselek alargunari edo bizirik dirauen izatezko bikoteko kideari gozamen eskubideak duen balioa ordaindu ahal izango diote, Kode Zibilak 839.artikuluaren ezarritako edozein ordainketa metodo erabiliz (biziarteko errenta, ondasun jakin batzuen produktuak edo eskudiruzko kapital bat)⁷⁴. Aukera gauzatzeko uneari dagokionez, banaketa baino lehen egin behar da, alargunaren egoeraren egonkortasuna mantentze aldera⁷⁵.

Konmutatzeko aukera haien jabetza gozamen eskubideaz zamatuta dutenena da, nahiz eta hartutako erabakia jabeakideen kasuan, ahobatekoa izan beharko den⁷⁶ eta ordainketa bide bakar bat hautatuz⁷⁷. Beraz, konmutazioa legeak seme alaba zordunei ematen dien aukera da, baina ez gozamen eskubidea duen alargun edo bikoteari.

Espaniar Kode Zibilean araututako usufruktuarekin alderatuz, hau da, KZ 839, ikus daiteke printzipioz gozamen eskubidearen konmutazioaren arauketa berbera dela, ez baita alargunaren aukeratzeko eskubidea onartzen ez euskal Legean ezta Kode Zibilean. Hala ere, Kode Zibilak 840.artikuluaren salbuespen bat aurreikusten du, konmutazioa erabakitzeke ahalmena ezkontide alargunari esleituz, baldintza bakarra ezkontzako seme-alabak (kausatzailearekin komunak) izatea delarik. Dena den, KZ 840.artikuluko salbuespenean ere, usufruktu eskubidea zeren truk konmutatzea ondorengoek erabakiko lukete.

Beraz, ezkontide alargunaren edo bizirik dirauen bikotekidearen ikuspuntuak, gozamen eskubidearen konmutazioak ez diola babesik gehitzen. Izan ere, konmutatzeko erabakia gozamenaz grabatuta dagoenak izango du, eta ezkontide alargunak ezingo du hartutako erabakia ukatu. Hau da, gozamen eskubidearen kapitalizazioa onartzen du legeak, baina ez ezkontide alargunaren beharrianak asetu ahal izateko, baizik eta gozamenaz grabatutako jabe soilen nahiak asetzeko.

⁷⁴ GALICIA AIZPURUA, G., "Limitaciones a la libertad de disposición por causa de muerte", *Manual de Derecho Civil Vasco, op. cit.*, 396. orr.

⁷⁵ GALICIA AIZPURUA, G., "Limitaciones a la libertad de disposición por causa de muerte", *Manual de Derecho Civil Vasco, op. cit.*, 396. orr.

⁷⁶ LLEDÓ YAGÜE F., "Artículo 53", *Análisis sistemático de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de derecho civil vasco, op. cit.*, 494 orr.

⁷⁷ LACRUZ BERDEJO, J. L., eta SANCHO REBULLIDA, F., *Elementos de Derecho Civil V Sucesiones*, Librería Bosch, Barcelona, 1981, 478. orr.

D) Gozamen eskubidea azkentzea

EZZL 55. artikulua aztertzen ditu gozamen eskubidearen azkentze kausak. Oinordetza-eskubideak azkentzeko arrazoiei dagokienez, artikulua horrek adierazten du sortutako eskubideak indargabetzeko arrazoia dela bizirauten duenak "senar-emazteen bizitza"⁷⁸ egitea edo beste pertsona batekin harreman afektibo-sexuala izatea. Hau horrela izanda, GALICIA AIZPURUAk aipatzen duen bezala, uler daiteke beste ezkontza bat sortzeak ere azkenduko lukela gozamen eskubide hau, 54.artikuluaren biztantez eskubidearentzat adierazten den bezala⁷⁹.

E) Gozamen eskubidea eta tronkalitatea

Jakinaenez, 5/2015 legeak EAE osorako araudi bateratua ekarri zuen arren, zenbait berezitasun kontserbatu ziren, hala nola, Bizkaiko Foruko tronkalitatea. Ondasun tronkaletan nahitaezko oinordetza egoteak kausatzailearen *mortis causa* xedapen-askatasuna urratzen du, ondorengoen, aurrekoen eta laugarren mailarainoko albokoen alde jardutean. Gozamen eskubideari dagokionez, esan beharrekoa da, alargunari edo bizirik dirauen izatezko bikotekideari aitortutako eskubideek ez dutela eraginik izango ondasun tronkalak ukitzeko ezintasunaren gainean; ez du ukiezintasun horren gainean eraginik izango, halaber, hari gozamen unibertsalaren gaineko legatua emateak (EZZL 70.5 artikulua)⁸⁰.

Derrigorrezko gozamen eskubidearen eta tronkalitatearen arteko taldak kasuetan, esan daiteke tronkalitatea seniparteari gailentzen zaiola, hala ere, nahiz eta tronkalitatearen eskubideak senipartearikiko gailendu (EZZL 70.1 artikulua), hau EZZL 70.3 artikuluaaren kontextuan

⁷⁸ "Senar-emazte bizitza" zer den argitzeko, ikusi AGE 42/2012 Epaia, 2012ko otsailaren 9koa (Roj: STS 624/2012): "(b) no queda demostrada de forma suficiente la existencia de una convivencia continuada y estable propia de una relación matrimonial; c) para la existencia de una relación equivalente a la marital, debería haberse probado "la existencia de un modo de vida en común que evidencie o exteriorice un proyecto compartido" . Solo se prueba la existencia de una relación sentimental, de manera pública y en diversos vehículos y establecimientos hosteleros de esta ciudad y sus alrededores; d) "una relación de amistad íntima incluso con mantenimiento de relaciones sexuales y de cierta duración no puede ser calificada de marital si no va acompañada de ese detalle calificador de tener un proyecto común de presente y de futuro que no se constata en la relación mantenida [...]."

⁷⁹ GALICIA AIZPURUA, G., "Limitaciones a la libertad de disposición por causa de muerte", *Manual de Derecho Civil Vasco*, op. cit. 396-397. orr.

⁸⁰ GALICIA AIZPURUA, G., "Limitaciones a la libertad de disposición por causa de muerte", *Manual de Derecho Civil Vasco*, op. cit., 401 orr.

ulertu behar da. Beraz, alargunaren edo bizirik dirauen izatezko bikotekidearen seniparte eskubideak tronkalekoak ez diren ondasunen gainekoak izatea ezartzen da, eta ondasun horien faltan edo beren eskubideak asetzeko nahikoak ez direnean bakarrik, ondasun tronkaleko beharrezko zenbatekoaz beteko da senparteari dagokion kuota (EZZL 70.3 artikulua). Beste hitz batzuetan, ezkontide alargun edo bizirik dirauen izatezko bikotekidearen gozamen eskubideak, printzipioz, tronkalekoak ez diren ondasunak grabatu behar dituela, eta horiek ez daudenean bakarrik jo ahal izango dela tronkaletara, beharrezkoa den zenbatekoan (EZZL 70.3 artikulua)⁸¹.

F) Gozamen eskubidea babes bezala

Izatezko bikote edo alargunaren senipartea berezia da, legeak sortutako eskubide erreal mugatua delako. Erabili eta gozatzeko eskubide soila izan arren (jabetza soilik gabekoa), ezkontide alargunaren eskubideak babesteko instrumentu egoki bat izan daiteke, ezkontidea hil ondoren bizitzeko lekua eta bizirauteko bitartekoak dituela ziurtatuz. Oinordetza eskubide honen helburua da ezkontide alargun edo izatezko bikotekidearen ongizatea ziurtatzea kausatzailea hil ondoren, familiaren etxebizitza galdu ez dezan edo zailtasun ekonomikoak ekiditu ditzan. Helburu hau lortzeko, legegileak gozamen eskubide bat erabiltzea erabaki du (jabetza eskubidea aitortu beharrean) eta honek arazoak sor ditzake zenbait kasutan, mugatutako eskubide bat baita, jabe eta gozamedunen arteko gatazkak sortzen dituen.

Egia da ezkontide alargunari dagokion gozamen eskubidearen kuota aurreko legearekiko handitu egin dela, hala ere, baliteke eman daitekeen babes egokiena ez izatea. Alde batetik, jabeen eta gozamedunen interesak kontrajarriak izatea gerta daitekelako, eta are gehiago, konmutazioa eskatzeko eskubidea duen bakarra jaraunlea delako, hau da, jabetza soila duena. Beste alde batetik, bizi-itxaropena gero eta altuagoa dela aintzat hartuz (2022ko datuei erreparatuz gizonezkoen bizi-itxaropena 81,147 urtetan dago, emakumezkoena aldiz 86,324 urtetan⁸²) alargun edo bizirik dirauen izatezko bikotearen beharrianak aldatuz doazela kontuan hartu beharra dago. Alegia, kausatzailearen ezkontide edo bikote izandakoak, gehienetan adin handikoak direla ondorioztatuz, haien beharrianak askotan ez dira gozamen eskubide batekin asetuko, askotan beharrezkoa baitute nolabaiteko laguntza, eta usufruktu soila ez da haien egoerak eskatzen dituen zaintzak mantentzeko nahikoa.

⁸¹ GALICIA AIZPURUA, G., “Limitaciones a la libertad de disposición por causa de muerte”, *Manual de Derecho Civil Vasco, op. cit.*, 400-401. orr.

⁸² Instituto Nacional de Estadística. Tablas de Mortalidad Proyectadas 2018-2067: Esperanza de vida por edad y sexo. Eskuragarri hemen: www.ine.es

Honekin esan nahi dudana da, biztanleriaren zahartze progresiboa eta bakarrik bizi diren, egoitzetan bizi diren edo zaintzaileek artatzen dituzten eta kalteberatasun-egoeran dauden adinekoen kopuruaren hazkundeak gozamen eskubide bat baino babes indartsuago baten beharra dakarrela⁸³. Hau da, laguntza beharrean dauden alargunen kasuan, egokiagoa litzateke derrigorrezko oinordetzak jabetza kuota bat eskaintzea, gozamen eskubide baten ordez, beharrezkoa den egoeretan ondasunaren salmenta ahalbidetzeko. Horrela, alargunak beharrezko dituen zaintzak ordaintzea ahalbidetuz. Hala ere, ezin da ukatu gozamen eskubideak seme-alabei jabetza soilak eman eta ezkontideari ondasunak erabiltzeko eskubidea, bien interesak ase daitezkeela. Dena den, zaharkituz doan gizartean baliteke ez izatea alargunaren beharrianak betetzeko irtenbide egokiena.

6.2 Biztantze eskubidea

A) Kontzeptua eta objektua

Derrigorrezko oinordetzan betidanik ezagutu ditugun gozamen eskubideaz gain, euskal legegileak biztantze eskubidea gehitu du alargunaren babes bezala. EZZL-ren 54.artikuluak berrikuntza bezala ezartzen du biztantze eskubidea, alargunaren edo izatezko bikotetik bizirik dirauenaren aldeko eskubide berezi bezala, gozamen eskubideari gehitzen zaiona⁸⁴. Eskubide hau ezkontide alargunari edo bizirik dirauen izatezko bikotekideari esleitutako oinordetza-eskubide bat da, bai testamentuzko oinordetzan, bai oinordetza-itunetan, bai legezko oinordetzan⁸⁵. Laburbilduz, eskubide berri honek kausatzailearekin partekatutako etxebizitzan geratzeko aukera onartzen die ezkontide alargun edo bizirik dirauen izatezko bikotekideari. Arestian aipatu bezala, legegileak ez du argi uzten ohiko senipartearekin, hau da, gozamen eskubidearekin duen harremana, baina argi dago hala ere derrigorrezko eskubidea dela, gozamen eskubideaz gain aitortzen dena.

⁸³ VAQUER ALOY, A., “La protección del testador vulnerable”, *Iuris Dictio*, 14. bol., 16. zk., 2015, 95. orr.

⁸⁴ 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzkoa, 54.artikuluak: “*Alargunak edo bizirik dirauen izatezko bikotekideak, bere seniparteaz gain, biztantzeko eskubidea izango du, ezkontzari edo izatezko bikoteari dagokion etxebizitza horretan, betiere alargun dirauen artean, ezkonduen antzeko bizimodurik egiten ez duen artean, ezkontzatik kanpoko seme edo alabaren bat ez duen artean edo izatezko beste bikote bat eratzen ez duen artean.*”

⁸⁵ URRUTIA BADIOLA, A. M., “De las limitaciones a la libertad de testar. Sección primera. De la legítima (artículos 47 a 57). Sección segunda. Del cálculo de la herencia y pago de las legítimas”, *La Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco-n*, A. M. Urrutia Badiola (zuz. eta koord.), Academia Vasca de Derecho. Dykinson, Bilbao, 2016, 91-92. orr.

Gozamen eskubidearen eta biztantze eskubidearen arteko aldeari dagokionez, esan dezakegu etxebizitza baten gainean biztantze eskubidea uzteak ez duela esan nahi, besterik gabe, eskubide erreal hori etxebizitzarekiko erabilera osora hedatu behar denik. Baldin eta eskubide erreala eratzen den tituluan ez bada adierazten edo zehazten zein irismen eta hedaduran egikaritu behar den, Kode Zibilaren 524.artikuluari jasotako xedapenera jo beharko da, 5/2015 Legearen zehaztasun ezak Kode Zibila supletorioki erabiltzeko beharra dakarrelako. Xedapen horren arabera, *“biztantze eskubideak ematen dio eskubide hori duenari bere baitarako eta bere familiako pertsonentzat beharrezkoak diren piezak besteren etxe batean okupatzeko ahalmena”*⁸⁶. Hori dela eta, esan daiteke biztantze eskubidea usufruktua baino mugatuagoa den eskubidea dela, bizitzeko beharrezkoa den hori soilik barnebiltzen duelako. Beste hitz batzuetan, gozamen eskubidearen bidez grabatutako ondasuna nahi bezala erabili daiteke (eskubide honen mugak errespetatzen diren bitartean), biztantze eskubidean aldiz, grabatutako ondasuna beti izan beharko da etxebizitza, eta helburua, bertan bizitzea⁸⁷.

Biztantze eskubidearen oinarria eskubide erreal bezala Kode Zibileko 523 eta 529 artikuluen artean aurkitzen da, bertan biztantze eskubidea norberarena ez den etxebizitza batean bizitzeko ahalmen bezala definitzen da, eskubidearen titularraren beharrak asetzeko beharrezkoa den neurrian. Kode Zibilaren arabera, biztantze eskubidea da higiezinaren gozamenerako eskubide “txikienetako” bat, hala ere, bere erabilerak gorakada izan du familia eremuan, non biztantzeko eskubidearen helburua bizitzan zehar elkarrekin bizi izan direnak babestea den, bizirik dirauenari aurreko bizitzako *status*-ari eusten utziz⁸⁸. Ildo honi jarraituz, aipagarriak dira biztantze eskubideari lotutako Kode Zibileko 822. artikulua, (senipartedun ezgaituaren aldeko eskubidea⁸⁹) eta 1407 artikulua (ezkontide baten heriotzaren ondorioz

⁸⁶ URRUTIA BADIOLA, A.M., “Habitación, familia y sucesión (Del Derecho civil vasco al Derecho privado europeo)”, *Revista crítica de Derecho Inmobiliario*, 738. zk., 2021, 246 orr.

⁸⁷ 531/200 Epaia, 2000ko maiatzaren 30ekoa (Roj: STS 4377/2000): *“Una cosa es la tolerancia en compartir la vivienda con familiares y, con mayor razón, si son los más próximos, y otra que esta situación genere por sí derechos arrendaticios a favor los acogidos aunque sean los propietarios del bien usufructuado, ya que el derecho de usufructo otorga a su titular, en comparación con otros derechos reales similares, como los de uso y habitación, amplias facultades de goce y disfrute, que puede muy bien compartir, pero el derecho permanece íntegro y no por ello queda restringido o limitado, hasta el punto de que los nudos propietarios quedan prácticamente excluidos del disfrute, si se tiene en cuenta el artículo 489 del Código Civil.”*

⁸⁸ MANZANO FERNÁNDEZ, M.M., *El uso de inmuebles en el Derecho civil moderno*, Colegio de Registradores de la Propiedad y Mercantiles de España, Madrid, 1999.

⁸⁹ 1889ko uztailearen 24ko Errege Dekretua, Kode Zibila argitaratzen duena, 822 artikulua: *“La donación o legado de un derecho de habitación sobre la vivienda habitual que su titular haga a favor de un legitimario que se encuentre en una situación de discapacidad, no se computará para el cálculo de las legítimas si en el momento del fallecimiento ambos estuvieren conviviendo en ella”*

ematen den irabazpidezko eraentzaren likidazioan ezkontide alargunari ematen zaion aukera, berari esleitutako ondarean, familia etxebizitzaren gaineko biztantze eskubidea sartzeko⁹⁰).

Euskal Zuzenbidera bueltatuz, 5/2015 Legean biztantze eskubide berri honek duen esanahi eta aplikazioa aztertzeari ekingo diogu. Esan bezala, EZZL 54.artikuluari aurkitzen da, II. Tituluko II. Kapituluari. Eskubide mugatua da grabatutako ondasunari dagokionez, objektu hori beti izango baita ezkontza edo izatezko bikotearen etxebizitza.⁹¹ Biztantze eskubidea ahalbidetzeko, etxea hildako ezkontide edo izatezko bikotearen jaraunspenaren parte izan behar du (berdin dio kausatzailearen ondasun pribatiboa edo irabazizkoa izan). Horrez gain, ezin da edozein etxe izan, baizik eta ezkontideen edo bikotearen familia etxebizitza izan behar da, hau da, elkarbizitza gertatu zen tokia⁹². Hori bai, betiere gozamenean edo jabetzan alargunari etxebizitza esleitu ez bazaio, eskubide horiek biztantzeko eskubidea xurgatzen baitute⁹³.

B) Subjektua

Biztantze eskubidearen titular, gozamen eskubidearen titular diren ezkontide alargun eta bizirik dirauen izatezko bikotea dira. Hala ere, legeak zenbait kasu ezartzen ditu, non subjektu hauek biztantze eskubidearen titulartasunetik at geratzen diren, nolabaiteko fideltasuna eskatzen baita honako eskubide hauetaz gozatzeko (bai arestian azaldutako gozamen eskubidea baita biztantze eskubidea ere)⁹⁴.

EZZL 54.artikuluak dioenez, alargunak edo bizirik dirauen izatezko bikotekideak, bere seniparteaz gain, biztantzeko eskubidea izango du, betiere alargun dirauen artean, ezkonduen antzeko bizimodurik egiten ez duen artean, ezkontzatik kanpoko seme edo alabaren bat ez duen artean edo izatezko beste bikote bat eratzen ez duen artean.

⁹⁰ 1889ko uztailearen 24ko Errege Dekretua, Kode Zibila argitaratzen duena, 1407 artikulua: *“En los casos de los números 3 y 4 del artículo anterior podrá el cónyuge pedir, a su elección, que se le atribuyan los bienes en propiedad o que se constituya sobre ellos a su favor un derecho de uso o habitación. Si el valor de los bienes o el derecho superara al del haber del cónyuge adjudicatario, deberá éste abonar la diferencia en dinero.”*

⁹¹ URRUTIA BADIOLA, A.M., “Habitación, familia y sucesión (Del Derecho civil vasco al Derecho privado europeo)”, *Revista Crítica de Derecho Inmobiliario*, 783. zk., 2021, 229. orr.

⁹² URRUTIA BADIOLA, A.M., “Habitación, familia y sucesión (Del Derecho civil vasco al Derecho privado europeo)”, *Revista Crítica de Derecho Inmobiliario*, 783. zk., 2021, 240. orr.

⁹³ GRANADOS DE ASENSIO, D., “La legítima en la Ley 5/2015 de Derecho Civil Vasco: sus caracteres”, *JADO*, 27. zk., 2016, 527. orr.

⁹⁴ URRUTIA BADIOLA, A.M., “Habitación, familia y sucesión (Del Derecho civil vasco al Derecho privado europeo)”, *Revista Crítica de Derecho Inmobiliario*, 783. zk., 2021, 236. orr.

C) Konmutazioa

Derrigorrezko gozamen eskubidea konmutatzeko aukera dagoen arren, 5/2015 Legeak ez du biztante eskubidearen konmutazioa aurreikusten. Hortaz, konmutazioa posiblea ez dela ondorioztatu behar da⁹⁵. Beraz, jaraunsleek ez dute konmutazioa eskatzeko eskubiderik eta biztante eskubidea beste bide batez ordaintzeko, jaraunsle eta ezkontide alargun edo bizirauten duen bikotekidearen adostasuna beharrezkoa izango da.

Biztante eskubidea ezkontide alarguna babesteko instrumentua den arren, legegileak ez du irtenbiderik aurreikusi ezkontidea etxetik kanpo bizi behar den kasuetarako, zahar-egoitza batera joateko adibidez. Honekin esan nahi dudana da, legegileak haratago joateko aukera izan duela, ezkontideari bere biztante eskubidea kapitalizatzeko aukera onartuz, ezkontide alargunaren babesa areagotuz (batez ere gaur egungo ezkontide alargun figuraren beharrianak kontuan hartuta).

D) Biztante eskubidea azkentzea

Biztante eskubidea azkentzeko arrazoiak gozamen eskubidea azkentzeko berberak lirateke, alegia, EZZL 55.artikulan adierazitakoak. Hau da, testamentugileak beren-beregi xedatutakoa salbu, banandutako ezkontideak ez du seniparte-eskubiderik izango, eta, ezkontzari edo izatezko bikoteari dagokion etxebizitza horretan, ez du biztantzeko eskubiderik izango, baldin eta banantzea epai irmoan adierazi bada, edo banantze hori elkarrekin ados jarrita erabaki eta modu sinesgarrian jasota badago; orobat, ezkontideak, ezkonduen antzeko bizimodua egiten duenean, edo bizirik dirauen izatezko bikotekideak, beste norbaiti lotuta dagoenean sentimendu- eta sexu-harremanak direla bide (EZZL 55.artikula).

E) Biztante eskubidea eta tronkalitatea

Bizkaiko Foruko tronkalitatea mantentzen dela jakinik, etxebizitza kausatzailearen ondasun tronkala denean biztante eskubidearekin zer gertatuko litzateke?

⁹⁵ URRUTIA BADIOLA, A.M., “Habitación, familia y sucesión (Del Derecho civil vasco al Derecho privado europeo)”, *Revista Crítica de Derecho Inmobiliario*, 783. zk, 2021, 240. orr.

Honen erantzuna 5/2015 Legeko 70. artikuluan aurki dezakegu (gozamen eskubidearen atalean aipatu dugun bezala), bertan planteatzen baita biztante eskubide eta tronkalitatearen arteko talka. Gauzak horrela, etxebizitza kausatzailearen ondasun tronkala bada ere, bizirik dirauen ezkontide alargunak horren gaineko biztante eskubidea izango du.⁹⁶.

F) Biztante eskubidea babes bezala

Biztante eskubidearen kasuan, gozamen eskubidearen arazo berdina genuke, hau da, aurreko egoerarekiko babes berriak gehitu arren, gaur egungo gizarte egoerari ez dio bete betean erantzuten. Hau da, arestian aipatu bezala, bizi-itxaropena luzatuz doan heinean, gero eta gehiago dira haien beharrianak asetzeko beste norbaiten laguntza behar duten alargunak, ez baitira askotan haien kabuz bizitzeko gai.

Hortaz, biztante eskubideak babes nahikoa eskainiko luke alarguna osasuntsu dagoen kasuetan, hau da, bere kabuz bizitzeko gai denean, zaintzaile edo asistentzia beharrik gabe. Kasu hauetan, erabilera eskubide soil hau, alargunaren posizioa babesteko instrumentu guztiz egokia litzateke.

Hala ere, gero eta gehiago direnez bizitza independentea eramateko gai ez diren alargunak, gozamen eskubidearen atalean aurkeztutako auzi berberaren aurrean egongo ginateke. Gainera, biztante eskubidean konmutazioa posible ez denez, ez dago ezta biztante eskubide hau ordainketa metodo batengatik trukatzeko aukerarik. Honako kasuetan, alarguna babesik gabeko egoera batean aurkituko genuke, biztante eskubide soil baten titular izateak ez duelako nahikoa babesik eskaintzen kalteberatasun egoeran dagoen alargunaren egoerari aurre egiteko.

Dena den, derrigorrezko oinordetzako eskubide honekin, euskal legegileak aurrerapauso nabaria eman duela ukazina da, estatuko ordenamendu komunak ematen ez duten babes bat eskainiz. Hala ere, ez du kontuan hartu jada etxebizitza ez dela premia bakarra alargunen artean.

⁹⁶ URRUTIA BADIOLA, A.M., “Habitación, familia y sucesión (Del Derecho civil vasco al Derecho privado europeo)”, *Revista Crítica de Derecho Inmobiliario*, 783. zk, 2021, 246.orr.

VII. ONDORIOAK

5/2015 Legearen nondik norakoak aztertu ondoren, ezkontide alargun eta bizirik dirauen izatezko bikotekidearen derrigorrezko oinordetza babesetan zentratuz, lan honen ondorioetara iritsi gara. Atal honetan, lanean zehar aipatutako zati azpimarragarrienak aipatuko ditut, horiei buruz hausnartuz.

- Ukaezina da 5/2015 Euskal Legearen garrantzia EAE osorako Zuzenbide zibila ezartzerako orduan. Lehen aldiz hiru probintzientzat legedia bateratua ezarri baitu, 3EHFZZLren indarraldian zehar zeuden araudi anitzak bateratuz. Gogoratu behar dugu lege hau onartu baino lehen, EAE barnean lau legedi zibil desberdin aplikatzen zirela, eremu geografiko murriz batean egoera guztiz desberdinak ekarriz (batez ere oinordetza eremuan). Hori dela eta, azpimarratu beharrekoa da auzotasun zibilak izan duen garrantzia euskal gizartearen batasun zibila lortze aldera. Gainera, euskal Zuzenbide zibil lege bakarra ezarri arren, zenbait berezitasun mantendu izanak Foru bakoitzaren berezitasunekiko errespetua erakutsi du.
- Izatezko bikoteen egoerari buruzko araudi komunik ez egon arren, EAEn 2/2003 Legeak, maiatzaren 7koak erregistratutako izatezko bikoteei ezkonduen eskubide berberak aitortzen dizkie. Gainera, 2/2003 legea aplikagarri izan dadin, erregistratzea beharrezkoa da, hortaz ez da EK 10.1 artikulua urratzen, legeak sortutako eskubide eta betebeharrak berariaz onartzen baitituzte bikotekideek.
- Lanaren gaia derrigorrezko oinordetza den arren, borondatezko zein legezko oinordetzan ezkontide alargunari zenbait babes aipagarri ematen zaizkio:
 - Borondatezko oinordetzan: komisario bidezko oinordetzan ezkontide alargunei zenbait abantaila eskaintzen dizkie legeak komisario funtzioa betetzeko orduan. Gainera, kausatzaileak haren ondasun guztien gaineko gozamen unibertsala alargunari uzteko aukera aitortzen du legeak. Azkenik, Zuzenbide komunean ez bezala, 5/2015 Legeak testamentu mankomunatua onartzen du, bikotearen ondasun komunak haien artean mantentzea ahalbidetuz.
 - Legezko oinordetzari dagokionez, bi sistema bereizten dira: auzotasun zibila duen orori aplikagarri zaiona eta bizkaitar tokiko auzotasuna dutenei

aplikagarri zaiena (tronkalitatearen printzipioa aplikatuz). Ondasun tronkalak ez dauden kasuan ezartzen den hurrenkera kontuan harturik, ezkontide alarguna ondorengoan atzean kokatzen da, hau da, bigarrena dago hurrenkeran. Honekin ikus dezakegu, legezko oinordetzan ere euskal Legeak gehiago babesten duela alargunaren posizioa Kode Zibilak baino, bertan ezkontide alarguna hurrenkeraren hirugarren postuan kokatzen baita, ondorengoan eta aurrekoan atzetik (KZ 944.artikulua).

- Derrigorrezko oinordetzari dagokionez, jakina denez, legeak nahitaezko oinordekoei ondasunen zati bat erreserbatzen die. Alargunaren edo bikotekidearen kasuan, derrigorrezko oinordetzak erreserbatzen dien eskubidea gozamen eskubide eta biztanzte-eskubide batek osatzen dute.
 - Gozamen eskubideari dagokionez, ezkontide alargunari dagokion senipartearen kuota ondasunen erdia izango da ondorengoekin batera agertuz gero, eta hauen faltan ondasunen bi herenen gainekoa. Araudi honek Kode Zibilean aurreikusitakoa baino babes handiagoa ematen dio ezkontide alargunari, izan ere, bertan, alargunaren gozamen eskubidea jarauntsiaren heren batekoa baita ondorengoekin pilatuz gero, jarauntsiaren erdiaren gainekoa aurrekoekin pilatzen bada eta bi hirurenekoa bakarrik deitua den kasuetan. Baina, espainiar Zuzenbideak baino babes gehiago emateak ez du esan nahi emandako babesak nahikoak direnik. Nire ustez, egokiagoa litzateke gozamen eskubide horren orde, jabetza eskubide bat aitortzea ezkontide alargunari derrigorrezko eskubide bezala. Ulergarria da legegileak gozamen eskubidea mantentzen jarraitzea, ondorengoan eta alargunaren egoera babesteko erdibideko irtenbidea delako. Hala ere, alarguntza egoeran dauden subjektuen adina kontuan harturik, gaur egungo gizartean babes ekonomikoago batek hobeto babestuko luke hauen egoera. Dena den, gozamen eskubidea babes bezala hobetu litzateke, ezkontide alargunari konmutatzeko erabakia hartzeko aukera onartuko balitzai, gaur egungo konmutazioaren arauketak nabari murrizten baitu hauen babesa.
 - Biztanzte eskubideari dagokionez, euskal legegileak Kode Zibilarekin alderatuz, aurrerapauso handia egin du. Seniparteari dagokion ohiko gozamen

eskubideaz gain, biztante eskubidea derrigorrezko oinordetzaren parte ezarriz. Hala ere, gogoratu behar dugu gaur egungo alargunaren premia askotan ez dela etxebizitza, baizik eta zaintza. Hortaz, ezkontide alargunaren egoera hobetzeko legegilearen esfortzua nabaria izan den arren, hobetu liteke, gaur egungo egoerara egokituz. Adibidez, biztante eskubidea konmutatzeko aukera onartuz, eta erabaki hau alargunaren esku utziz, nabari hobetuko litzateke babes honen eraginkortasun praktikoa.

VIII. BIBLIOGRAFIA

AGUIRRE ZÁRATE, I., “Legítima y apartamiento: reglas de aplicación temporal y problemas que suscita su interpretación (tras la entrada en vigor de la ley 5/2015, de 25 de junio)”, *JADO*, 30. zk., 2022, 57-60. orr.

ASUA GONZALES, C. I., “Familia, derecho de familia e instituciones para la convivencia”, *Manual de Derecho Civil Vasco-n*, J. Gil Rodríguez (zuz.) eta G. Galicia Aizpurua (koord.), Atelier, Barcelona, 2016, 248-255. orr.

ASUA GONZÁLEZ, C. I., “La STC 93/2013, de 23 de mayo, y la regulación del régimen interno de las convivencias no matrimoniales en la Comunidad Autónoma del País Vasco”, *Herri-Arduralaritzako Euskal Aldizkaria*, 103. zk., 2015, 30. orr.

ASUA GONZÁLEZ, C. I., “La ordenación por comisario”, *Manual de Derecho Civil Vasco-n*, J. Gil Rodríguez (zuz.) eta G. Galicia Aizpurua (koord.), Atelier, Barcelona, 2016, 361-509. orr.

ATXUTEGI GUTIÉRREZ, J., “Senipartea. Kode Zibilaren eta foru zuzenbideen eraentza juridikoen arteko kontrastea”, *Zuzenbidea ikasten. Irakaskuntzako aldizkaria*, 1. zk., 2014. 10. orr.

BARRUETABEÑA ZENEKORTA, M., El testamento mancomunado o de hermandad en el derecho civil del País Vasco, Tirant lo Blanch, Valencia, 2013.

BERCOVITZ RODRIGUEZ-CANO, R., “El Matrimonio”, *Manual de Derecho Civil: Derecho de Familia-n*, R. Bercovitz Rodríguez-Cano (koord.), Bercal, Madrid, 2013, 45-47. orr.

BERCOVITZ RODRIGUEZ-CANO, R., “Sucesión intestada”, *Manual de Derecho Civil: Sucesiones-n*, R. Bercovitz Rodríguez-Cano (koord.), Bercal, Madrid, 2021, 251-252. orr.

BERIAIN FLORES, I., “Las uniones no matrimoniales y el derecho al libre desarrollo de la personalidad (A propósito de la sentencia del Tribunal Constitucional 93/2013, de 23 de abril)”, *Derecho privado y Constitución*, 28. zk., 2014, 142-152. orr.

DÍEZ-PICAZO, L. eta GULLÓN BALLESTEROS, A., *Sistema de Derecho Civil: vol. IV (Tomo 1)*, Tecnos, Madrid, 2018.

ECHEVERRÍA, J. D., DE, I., & LAS CORTES, D. A.: “*Vecindad civil y derecho interregional privado: una reforma necesaria*”. Lección inaugural de la apertura de curso de la Academia Vasca de Derecho, 2017, 71. orr.

GALICIA AIZPURUA, G., “Sucesión Testamentaria en el País Vasco”, *Manual de Derecho Civil Vasco-n*, *Manual de Derecho Civil Vasco-n*, J. Gil Rodríguez (zuz.) eta G. Galicia Aizpurua (koord.), Atelier, Barcelona, 2016, 323. orr.

GALICIA AIZPURUA, G., “Delación hereditaria y sucesión legal en el País Vasco”, *Manual de Derecho Civil Vasco-n*, *Manual de Derecho Civil Vasco-n*, J. Gil Rodríguez (zuz.) eta G. Galicia Aizpurua (koord.), Atelier, Barcelona, 2016, 297-307. orr.

GALICIA AIZPURUA, G., “Limitaciones a la libertad de disposición por causa de muerte”, *Manual de derecho civil vasco-n*, *Manual de Derecho Civil Vasco-n*, J. Gil Rodríguez (zuz.) eta G. Galicia Aizpurua (koord.), Atelier, Barcelona, 2016, 394-401. orr.

GALICIA AIZPURUA, G., “Notas a la Ley 5/2015, de 25 de Junio, de Derecho Civil Vasco”, *Actualidad Jurídica Iberoamericana*, 4. zk., 2016, 305-315. orr.

GIL RODRÍGUEZ, J., “Del Derecho Foral al Derecho Civil Vasco”, *Manual de Derecho Civil Vasco-n*, J. Gil Rodríguez (zuz.) eta G. Galicia Aizpurua (koord.), Atelier, Barcelona, 2016, 26-39. orr.

GIL RODRÍGUEZ, J., “¡Por fin, hacia un Derecho civil vasco!”, ¿Hacia dónde van los Derechos Civiles Autonómicos? El futuro de los Derechos Civiles Autonómicos-n, L. Gázquez Serrano (koord.), Madrid, Difusión Jurídica y Temas de Actualidad, 2011, 4. orr.

GIL RODRÍGUEZ, J., “Sistema de Fuentes del Derecho Civil Vasco”, *Manual de Derecho Civil Vasco-n, Manual de Derecho Civil Vasco-n*, J. Gil Rodríguez (zuz.) eta G. Galicia Aizpurua (koord.), Atelier, Barcelona, 2016, 60-62. orr.

GIL RODRÍGUEZ J., “La posición del viudo y del conviviente supérstite”, *Manual de Derecho Civil Vasco-n, Manual de Derecho Civil Vasco-n*, J. Gil Rodríguez (zuz.) eta G. Galicia Aizpurua (koord.), Atelier, Barcelona, 2016, 283-287. orr.

GONZÁLEZ SAN SEBASTIÁN T., “Artículo 110”, *Análisis sistemático de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de derecho civil vasco-n*, A.M. Urrutia Badiola (zuz.), F. Lledó Yagüe (zuz.), O. Monje Balmaseda (zuz.) eta A.M. Urrutia Badiola (koord.), Dykinson, Madrid, 885. orr.

GOROSTIZA ETXEBERRIA, L., “5/2015 Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko legearen eragingarritasun soziala”, *JADO*, 30. zk., 2022, 257-263. orr.

IMAZ ZUBIAUR L., *Euskal Zuzenbide Zibila I*, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2007, 20-28 orr.

LACRUZ BERDEJO, J. L., eta SANCHO REBULLIDA, F., *Elementos de Derecho Civil V Sucesiones*, Librería Bosch, Barcelona, 1981.

LLEDÓ YAGÜE F., “Artículo 57”, *Análisis sistemático de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de derecho civil vasco-n*, A.M. Urrutia Badiola (zuz.), F. Lledó Yagüe (zuz.), O. Monje Balmaseda (zuz.) eta A.M. Urrutia Badiola (koord.), Dykinson, Madrid, 509. orr.

LLEDÓ YAGÜE F., “Artículo 52”, *Análisis sistemático de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de derecho civil vasco-n*, A.M. Urrutia Badiola (zuz.), F. Lledó Yagüe (zuz.), O. Monje Balmaseda (zuz.) eta A.M. Urrutia Badiola (koord.), Dykinson, Madrid, 490-491. orr.

LLEDÓ YAGÜE F., “Artículo 53”, *Análisis sistemático de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de derecho civil vasco-n*, A.M. Urrutia Badiola (zuz.), F. Lledó Yagüe (zuz.), O. Monje Balmaseda (zuz.) eta A.M. Urrutia Badiola (koord.), Dykinson, Madrid, 494. orr.

MANZANO FERNÁNDEZ, M.M., *El uso de inmuebles en el Derecho civil moderno*, Colegio de Registradores de la Propiedad y Mercantiles de España, Madrid, 1999.

TENA PIAZUELO I., “Artículo 24”, *Análisis sistemático de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de derecho civil vasco-n*, A.M. Urrutia Badiola (zuz.), F. Lledó Yagüe (zuz.), O. Monje Balmaseda (zuz.) eta A.M. Urrutia Badiola (koord.), Dykinson, Madrid, 290-295. orr.

URRUTIA BADIOLA, A. M., “De las limitaciones a la libertad de testar. Sección primera. De la legítima (artículos 47 a 57). Sección segunda. Del cálculo de la herencia y pago de las legítimas”, *La Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco-n*, A. M. Urrutia Badiola (zuz. eta koord.), Academia Vasca de Derecho. Dykinson, Bilbao, 2016, 91-92. orr.

URRUTIA BADIOLA, A.M., “Habitación, familia y sucesión (Del Derecho civil vasco al Derecho privado europeo)”, *Revista crítica de Derecho Inmobiliario*, 738. zk., 2021, 229-246. orr.

VAQUER ALOY, A., “La protección del testador vulnerable”, *Iuris Dictio*, 14. bol., 16.zk, 2015, 95.orrr.

JURISPRUDENTZIA

KAE 222/1992 Epaia, 1992ko abenduaren 11koa

KAE 93/2013 Epaia, 2013ko maiatzaren 23koa

AGE 531/200 Epaia , 2000ko maiatzaren 30ekoa (Roj: 4377/2000)

AGE 42/2012 Epaia, 2012ko otsailaren 9koa (Roj: STS 624/2012)

WEB ORRIALDEAK

DatosMacro. Esperanza de vida al nacer. Eskuragarri hemen: www.datosmacro.com

Euskadi, A. D. J. E. (f. m.). *Izatezko elkartzeen erregistroa - Justizia*. Justizia Web ataria. Eskuragarri hemen: www.justizia.eus

Instituto Nacional de Estadística. Tablas de Mortalidad Proyectadas 2018-2067: Esperanza de vida por edad y sexo. Eskuragarri hemen: www.ine.es

